

uk

148. zenbakia / 2008 abenduak 1



izarren distira!

Kastina eta Gala
Egizu dakizuna!

Getxo

- 12-18 URTE BITARTEKO GAZTE GETXOTARRAK BEHAR DITUGU.
- IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA AZAROAK 14.
- KASTINA, AZAROAK 28
- GALA: ABENDUAK 5, 19:30ean. ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLAN (AREETA, GETXO). SARRERA DOHAINIK.
- SARIA: IKAS BIDAIARAKO LAGUNTZA EDO MULTIABENTURA ASTEBURUA

AURKEZLEA
NEREA
ALIAS
GONBIDATU
BEREZIA
LAIN

INFORMAZIO GEHIAGO
www.izarrendistira.nireblog.com



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Usoak Astrabuduko elizan.
7. LEHEN ETA ORAIN. Erandio Kukularratik.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Patxi Lazkano Basarte.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Gabonetako argiak, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Ur-hegazkina Ereagan.
30. BERBETAN. Iñaki Uriarte arkitektoa.
34. FOTOGRAFIA. Ananke Asseff.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zorion perfektua, Jabi Elortegi.
43. MUSIKA. Ama say bueltan. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Durangorako zerrenda. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Pilota partidak Getxoko frontoian.
46. ELKARRIZKETA. Gotzon Barandiaran.


AMAITZEKO

49. NON JAN. Dena den, Leioa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Leioztarrak Debarantz, 1965, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Naroa Gaintza, Maitane Nerekan.

Azala: Ananke Asseff



30 Iñaki Uriarte




11 Patxi Lazkano Basarte

Berbetan

Getxoko Punta Begoña, hirigintza eredu, eraikin ikusgarriak... Arkitektoak beldurrik barik eta zuzen ematen du iritzia; eta badauka alternatibarik.



46 Gotzon Barandiaran



34 Ananke Asseff



14 Aitor Bilbao, Tor Magoa



54 Naroa Gaintza



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak

www.renaultleioa.com

Iparragirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBI BIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan,
Zuberoa Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola,
Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara
Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

UK proiektzioa

Esku artean daukazuena, UK aldizkariaren 148. alea da. Urtea amaitu orduko, beste bat baino ez dugu kaleratuko. Baina, geldirik egoten ez dakigunez, saltza barrietan koilara sartzen ibili gara 148. alea egiteagaz batera. Jakinaren gainean egongo zarete dagoeneko, aurreko zenbakiko agenda arretaz irakurri zenutenak behintzat, UK aldizkariak 10 urte betetzen dituela laster. Gainera, 150. alea kaleratuko dugu urtarilean. Hori guztia ospakizunetarako arrazoia dela ikusita, eta Getxoko Euskara Zerbitzuak egindako gonbidapenari erantzunez, azaroaren 4rako ekitalditxo berezia antolatzea erabaki dugu. Arratsaldeko 20:30etik aurrera Algortako Kasinon batuko gara, 10 urteko ibilbideari gainbegiratutxoa emateko. Uribe Kostako iraganaren, orainaldiaren eta etorkizunaren (etorriko direnak albiste izan baititugu askotan) lekuko izan baitira aldizkariko orriak, eta gurean izan dena zuekatz konpartitu gura dugulako. Agendan apuntatzeko hitzordua badaukazue beraz.

UKko lantaldea

izan zen > Ibon Lavin txirrindulariari omenaldia Lemoizen



Azaroaren 21 eta 22an Ibon Lavin omendu zuten Lemoizko herritarrek. Udalak eta Andrakako Txirrindulari Elkartek elkarlanean antolatutako ekitaldi bietan, orain arteko ibilbideagatik, zein Orbeagaz (Euskaltel Euskadiko filiala), sinatu barri duen kontratuagatik zoriondu zuten 21 urteko txirrindularia. Lavinek eskerrak eman gurai izan zizkion denbora honetan guztian, bere ondoan egon diren herritar, lagun eta senideei; baina, batez ere, Miguel Madariagaren laguntza eskertu zuen. Goiko argazkian, herritarrek oparitutako plaka jasotzen ikus dezakegu.


uk

gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[irudia]



ASTRABUDUA, 2008KO AZAROA

Babes Ofizialeko Habien zozketa / Azaroaren erdialdera ateratako argazkian ikus daitezke usoak Erandioko Astrabudua auzoko elizako leihoan. Badirudi Babes Ofizialeko Habiaren zozketan izena eman dutela, eta han daudela zain habia nori egokituko, pare bat habi eta hamaika uso; pertsonak Babes Ofizialeko Etxebizitzaren zozketan legez. Baina usoei ez die Udalak emango; Jaungoikoak emango die agian, usoak, Espiritu Santua eta Hirutasun Santua, danak elizatik gertu egon daitezten. Berogailu zentrala edo gasekoa jarri beharko diete, ordea, negu gorriaren atarian. ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

GETXO-08

EUSKAL KULTURAREN X. JARDUNALDIAK

Azaroaren 21etik abenduaren 8ra
X Jornadas de la cultura vasca Del 21 de noviembre al 8 de diciembre

bagaaaaaara!!

bagiiiiiiiiiiiiire!!

08-11-10etik 30era - batzu amtsk? III. sms eta bideo lehlaketa
10 al 30 de nov - III concurso de sms y video

08-11-21 - VII NAZIOARTEKO TRIKITXA JAIALDIA - VII Festival Internacional de Trikitxa

08-11-26 - PIZZA TAILERRA - Taller de pizzas

08-11-27 - KOMERIAREN KLUBA

08-11-28 - III. EUSKARA SHOWA - Karaoke intercultural

08-12-02, 03 - LITERATURA TAILERRA JULEN GABIRIA idazlearen eskutik - Taller de literatura

08-12-03 - EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA - Día Internacional del euskera
TRIKIKANTU GOSARIA eta KANTUKAFEA

08-12-04 - UK PROIEKTATZEN - 10º aniversario de la revista UK

08-12-05 - 'IZARREN DISTIRA GALA eta KASTINA' Egin dakizuna!!

08-12-07 - BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2008 - Campeonato de bertsolaris de Bizkaia

08-12-08 - TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON JUNIOR: "BIHURRIKERIAK"

Eskerrik asko: Getxoko Udal Euskaltegia, Leuzate AER Euskaltegia, J. A. Agirre Euskaltegia, Bizkaiko Trikitixa Elkarte, Bizkaiko Bertsolaris Elkarte, The Piper's taberna, GLASS kafetegia.

Informazioa
www.getxo.net 94 466 00 10



Iraganez doa denbora* beti / ERANDIO KUKULARRATIK

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > bat, bi, hiru, erantzun!



Zerua Galeatik, 2008ko azaroa

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Txolarrea, kanarioa,
perikitoa, kaioa,
txolarrea, zozoa,
belea, eskusoa,
ipar-belea, antzara,
txantxangorria, enara,
mika, birigarroa,
kukua, potorroa,
zapelaitza, arranoa,
indioilarra, pinguinoa,
amilotxa, mirotza,
kabirai txikia, ontza,
saguzarra...

Et, et, et!

2

Ahateen gidari,
entzun arren, hara,
beste guztiak pasa
zaizkigu kontrara.
Denak hegoaldera
doaz, Afrikara,
gu, zergatik, ordea,
Eskandinaviara...
Errudun aldaketa
klimatikoa da.

3

Uxatzeko edonork
ez du ahalmena.
Ez da edozein katu
izutzen duena.
Nahiz txori denek izan
munduan barrena,
lastozko gizonaren
beldur nabarmena,
negua izaten da
txorimaloena.

* Doinua: Seguidilla eta Agur sagar
beltzaran

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidaliezaguzu atal honetan agertzea
gura zenukeen argazkiren bat; bertan
ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

korrika > apirilaren 3an helduko da XVI. Korrika Uribe Kostara



Informazio gehiago www.korrika.org web gunean

Lemoiztik sartuko da XVI. Korrika Uribe Kostara 2009ko apirilaren 3an. Bi mila kilometro egingo ditu martxoaren 26an, Tuteran hasi eta apirilaren 5ean Gasteizen amaituko den euskararen aldeko korrikaldiak. “Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira” lema aukeratu dute aurtengo ediziorako; Euskal Herrira etorri eta euskara ikasi eta transmititu dutenak omendu gura izan dituzte horregaz. Urtarrilean abiaraziko dute AEKko lagunek “Korrika Laguntzaile” kanpaina. Hamabi euroren truke, pin bat eta hainbat komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko duen txartela jarriko dute salgai. Horregaz, batutako diruagaz, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko euskaltegiak lagundu gura dituzte bereziki. Gainera, urtero bezala Korrika arropa erosi ahal izango da. Hori guztia www.korrika.org gunean ikus daiteke. ○

lemoiz > olatuen energia ikertzeko plataforma ipini dute Armintzan



Armintzako portuaren aurrean bota zuten eraikuntzaren lehen boila


BIMEP (Bizcay Marine Energy Platform) olatuen bidezko energia lortzeko eta ikertzeko zentroaren lehenengo buila izan dena itsasoratu zuten azaroaren 20an Armintzan. Egitasmo honeguz, 6.000 familiarentzako argindarra sortzeaz gain, itsas energiaren gaineko ikerketa eta garapen teknologikoa bultzatu gura dute. Urte bi barru egongo da martxan azpiegitura, eta 15 milioi euro inbertituko dituzte. Horrelako estazioetarako ezaugarri aproposak ditu Bizkaiko Itsasoak. Olatuek erdi-go mailako indarra dute, eta bertako baldintzak europar kostaldeko beste herrialde askotakoak baino hobekak dira. Olatuen mugimendua energia elektriko bihurtzeko, olatu bihurtzeko erabiliko dituzte. Elektrizitatea banatzeko sare nagusira bidaliko dute. ○

saiaz getaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..haria



...lehenengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

kontseilua > sarean eska daitezke 10. urteurrenerako sarrerakSarrerak www.nierebanoa.com web gunean eska daitezke

Abenduaren 13an bere hamargarren urteurrena ospatzeko, eta datozen urteotan egin beharreko ibilbidearen barri emateko ekitaldi jendetsua deitu du Kontseiluak. Barakaldoko BECen izango da arratsaldeko 18:00etatik aurrera, sarrera doakoa izango bada ere, alde aurretik eskuratzea beharrezkoa da. Horretarako, www.nierebanoa.com gunea ipini dute martxan. Bertan zure datuak eta helbidea utzi eta egun gutxiren buruan sarrerak etxean izango dituzu. Helbide berean, “Pauso bat haratago” kanpainaren euskarriak (flash animazioak, bideoak, audioak, etab.) aurki daitezke. Sarrerak 902 82 02 40 telefonora deituta ere eskura daitezke. Orain arte erabilitako “Bai euskarari” leloa, “Euskaraz bai” bilakatu dute Kontseilukoek; honegaz, euskararen normalizazioan “pauso bat haratago” joan gura dute. Izan ere, ezinbestekoa ikusten dute euskararen aldeko jarrera azaltzetik euskara erabili eta ikastera igarotzea. ○

krutwig > idazlearen ibilbideari buruzko webgunea sortu dute

Krutwig (zutunik, 3. eskumatik hasita) beste euskaltzain batzuek

Azaroaren 15ean 10 urte bete ziren Federico Carlos Krutwig Sagredo euskaltzain, idazle eta intelektual euskalduna hil zela. Data hori gogoan hartuta eta bere lana jasotzeko asmoagaz, web gune barria sortu du lantalde amateur batek: www.krutwig.org. Areetan (Getxo) jaio zen Krutwig 1921eko maiatzaren 15ean. Aita alemana eta ama bizkaitarra zituen. Hamar urteagaz, euskara ikasten hasi zen; ordurako bazekizkien alemana, gaztelera eta frantsesa. 18 urte zituenean, Resurrecion Maria de Azcue ezagutu, eta lagun minak egin ziren. 1942. urteko urriaren 29an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 1947an, aldiz, euskaltzain oso. Hamarnaka itzulpen, poesia eta artikulua idatzi ditu. Bere oroimenez sortutako gunean, argazkiak, biografia, eta bideoak aurki daitezke, besteak beste. ○



“Adin eta estilo oso ezberdinetako jendea batzen da Basartenan; hala ere, denek errespetuz jokatzeko dute, eta ez da arazorik sortzen”

Patxi Lazkano Basarte > Urdulizko Basartena tabernaren jabea

Saltsa guztietan sartuta dabil Patxi Lazkano, horregatik da ezaguna eskualdean. Horregatik eta, batez ere, Urdulizko Basartena tabernaren jabe delako. Bilbotarra bada ere, Uribe Kostan eman du bizitza erdia: “Nire ama getxoztarra da eta txikitik, ahal nuenean, hona etortzen nintzen”. 1991n zabaldu zuen taberna: “Arropa denda bat eta taberna bat zabaltzearen artean egon nintzen. Lagunarteko gizona naiz, berba egitea gustatzen zait, eta argi neukan jendeagaz kontaktuan egotea eskatzen zuen beharra izan behar zela nirea”. Lazkanoren harremanetarako dohaina gustuko dute Basartenako eliztarrek: “Adin eta estilo oso ezberdinetako jendea batzen da, baina denek errespetuz jokatzeko dute, eta ez da arazorik egoten. Ostegun sozialetan oso eztabaida politikak sortzen dira”. Tabernatik kanpo dagoenean ere, ez da geldirik egoten. Estropajo taldeko gitarra eta abeslaria da: “Lagun arteko kontu bat bezala hasi zen, eta dagoeneko 10 urte pasa dira. Orain nahiko geldirik gaudu, baina denbora daukagunean barrero hartuko dugu. Herriko talde kañeroa gara eta jendeak faltan botatzen gaitu”. Zine munduagaz ere harreman estua dauka: “27 laburmetraiatan eta zenbait iragarkitan hartu dut parte. Musikak baino esfortzu gutxiago suposatzen dit honek”. Han eta hemen ibiltzeko ez dio berarentzako denbora lar uzten: “Hiru urteko semea daukat eta denbora merezi du. Askotan errieta egiten didate etxeok, egun osoa hara eta hona ematen dudalako”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteiak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
ermarkaketak •



Gobelaren gorabeherak

Uholdeetako Batzorde Bereziaren batzarra atzeratu egin dute **Uraren Euskal Agentziak (URA)** horretarako **eskaria egin** ostean; **hil** honen **hasieran** batuko ei dira

Abendu hasiera honetara arte atzeratu dute Uholdeetako Batzorde Bereziak azaroan egin asmo zuen batzarra, Uraren Euskal Agentziak (URA) hala eskatuta, agentziak “denbora nahikoa eduki gura izan duelako jasotako datuak lekuan bertan egiaztatzeko eta Gobela ibairako proposatu zaizkion premiazko neurrien eraginkortasunaren gaineko analisi teknikoak amaitzeko”.

Orain dela gutxi joan den ekaineko uriolak eta Gobela ibaiak gainezka egin zuenekoak gogoan present eduki dituzte barriz Getxoko hainbat herritarrek. Izan ere, ibaiak barriro ere gora egin zuen orain dela ez asko, guztiz gainezka egin barik; baina itolarria bersentitu zuen hainbat auzokidek, ekaineko uriolen ostean etxera bueltatu eta hilabete bi eskas pasa ez zenean (beste auzotar batzuek ezin izan dute oraindik euren etxetara itzuli). Horren albotik, zenbait hedabidetan kezu agertu dira barriro ere larrialdi une horiek sentitu behar izategatik, eta horrelakoak saihesteko erakundeek baliabideak ipini dituzten zalantza agertu zuten.

Dena dela, uriolen ostean hainbat ekimen garatu ditu Getxoko Udalak, horien artean Uholdeetako Batzorde Berezia sortu zuen. Batzordea “udal talde politiko guztietako ordezkariak, Gobernu Taldeko kideak eta kaltetutako zonaldeetako auzokide elkarteetako ordezkariak osatzen dute”.

Azaroan egin asmo zuten batzarrean hurrengo gaien inguruan jardun behar



Iragan ekainean Gobelak gainezka egin zueneko argazkia

zuten: “ibaiaren arazoei Batzordeak berak URARI proposatu dizkion premiazko neurriei buruzko Agentziaren iritziak ezagutzeara, ibaia egokitzeko eta lehengoratzeko proiektuan aurrera egiteko; eta, uholdeen ondorioz estolda sarearen gainean egindako azterlan teknikoaren emaitzak jaso ondoren, horien konponbide-proposamenak jorratzea”. Alabaina, horiek guztiak hil hasiera

«Batzarra atzerako URAREN eskaera «kontu teknikoengatik» izan dela adierazi du Imanol Landak.»

honetarako deituko duten bilerarako utzi behar izan dituzte, esan legez, URAk batzar-deialdia atzeratzeko eskatu dio-eta Udalari; Agentziak berak aurkeztu beharreko iritziak-eta emateko denbora gehiago behar izan duelako.

URA Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen arloko eskumenak dituen sailari atxikita dago, eskubide pribatuko erakunde publikoa da; uraren arloan tokiko erakundeak dituzten eskumenak errespetatuko dituena. Bere jarduketan-ildo nagusien artean daude, besteak beste: EAEko ur-masen egoera ekologikoa hobetzea, Kantitate eta kalitate oneko hornidura unibertsala lortzea, EAEko saneamenduko planak amaitzea edota Uraren gaineko ikerketa eta aprobetxamendu iraunkorra egitea.

Getxoko alkate Imanol Landak zehaztu duenez, “URAREN eskaera kontu teknikoengatik izan da; Gobela ibairako proposatu diren premiazko neurrien benetako eraginkortasuna aztertzeke beharrezkoak direnak, eta neurri enantsiak edo osagarriak aztertzeke (egonez gero), azken finean, denok ixaroten ari garen premiazko jarduerak seriotasunez egiteko”. ◊

Artista berrien topagunea

Getxoartek **hilaren 5etik 8ra** zabalduko ditu ateak



Pasa den urteko Getxoarten ataratako argazkia

Arte Sortu Berrien Aretokak, Getxoartek, zazpigarren urtez eskainiko du arte proposamen berrien erakustaldia Aretako Geltokia plazako karpapean. Hilaren 5etik 8ra bitartean artista gazte edota hasiberriek, euren proposamenak, egiteko modu eta pentsamendu berritzaileak jendaurrean aurkezteko erakuslehoia eskainiko die Getxoartek. Aretoa 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:30era egongo da zabalik eta sarrerak bi euroko prezioa izango du (sarrera BBKren Gorria txartelagaz, ikasle txartelagaz, eta Gazte Txartelagaz erosiz gero bigarren bat doan lor daiteke).

Pasa den urteko ekitaldian 68 artistek erakutsi zituzten lanak Getxoarteko 62 erakusmahaietan, eta ekimena martxan ipini zenetik

300dik gora artistari eman die euren lanak aurkezteko aukera.

Ohi legez hamaika arte arlotako lanak egongo dira ikusgai: margoak, eskulturak, argazkiak, ikus-entzunezkoak (bideoak etab.), grabatuak, aurrekoen nahasketatik jaiotako sorkuntzak etab. Artista gazte edota hasiberrientzako aukera, jauzi-ohola, da Getxoarte, euren lana ezagutarazteko eta bultzatzeko helburuagaz antolatzen da-eta; ostera, horrez gainera, artezkarrien eta artisten topagune ere bada, proposamen berritzaileak ezagutzeko eta aurkezteko aukera eskaintzen duena, etorkizunari ateak ixten ez dizkion karpa... Hori bai, aditu talde batek lanen aukeraketa bat egiten du lehenago. ◊

BAPIGABONAK-EN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK ORAINDIK

Bizarra Lepoan Euskara elkarteak, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuagaz elkarlanean, urtero legez Bapigabonak ekimena antolatzen du udalerriko 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Ekitaldiak hilaren 26an, 29an eta 30ean eta urtarrilaren 2an eta 5ean egingo dira, eta parte hartzaileak bi taldetan banatuko dituzte, talde bat J. B. Zabala eskolan batuko da eta bestea Erromo herri ikastetxean. Ekitaldiak euskaraz izango dira eta prezioei dagokienez, bazkideek 45 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek 60 euro (Gutxieneko errenta jasotzen duten getxoztarrek 10 euro). Izen ematea Bizarra Lepoan elkarteak Algortako Karitate kaleko 1 zenbakian duen bulegoan egin beharko da, eta horretarako epea zabalik egongo da hilaren 9ra arte.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO AZKEN KANPORAKETA GETXON

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako (hilak 20, BEC, Barakaldo) azken kanporaketa hilaren 7an egingo da Getxon. Erromoko Santa Eugenia plazako karpapean izango da bertso-saioa arratsaldeko 05:30etik aurrera. Sarrerak 10 euro balio ditu (7 euro Bizkaiko Bertsozale elkartearen kideentzat; 5 euro 16 urtetik beherakoentzat) eta karpan bertan egongo dira salgai, saioa hasi baino ordubete lehenago.

GOROTZAK BATZEN EZ DITUZTEN TXAKUR-JABEEI 50-300 EUROKO ISUNAK

Getxoko Udalak txakurren gorotzak batzea bultzatzeko kanpaina ipini berri du martxan. Ostera, kanpainaz gainera, kale, parke eta lorategietatik euren animalien gorotzak batzen ez dituzten txakur-jabeei isunak jarri ahalko dizkietela azaldu dute arduradunek; isunok 50-300 euro bitartekoak izango dira.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA



Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Aitor Bilbao > Tor Magoa

“Polita da zure muturren aurrean hain ezinezkoa den zerbait zelan egiten den ikustea”



Informazio gehiago eta harremanetarako: www.tormagoa.com

Tor Magoaren sekretuen atzean 26 urteko Aitor Bilbao getxoztarra dago. Dagoeneko inguruotan bati baino gehiagori ezagun egingo zaion magoak magia ikuskizunak euskaraz eskaintzen ditu, eta etorkizunari begira zera diosku: **“Ahalik eta gehien ikasi gura dut, mago moduan ahal den beste hazi; horretarako lan egin behar da! Neure etorkizuna neuk jorratuko dut, neuk gogoan badaukat seguru nago aurrera egin ahal dudala; gauza handiagoak, barriagoak egin gura nituzke, magiari zerbait eskaini!”**

—Noiz sorgindu zintuen magiak?

—Sei urtegeaz-edo. Neure aititek magia apur bat egiten zuen kartakaz-eta. Gero betiko kutxa magikoa, *Magia Bornas*, eduki nuen, eta horregaz hasi nintzen. Gero alde batera utzi nuen denbora baterako. 16 urtegeaz edo, David Copperfield-en saioak-eta ikusten nituen eta barriro ere eutsi nion magiari, gogo handiagaz! Telebistan-eta mago bat ikusten dudanean, beti pentsatzen dut “neuk magia egin behar dut, berdin dit zelan, baina egin behar dut, ikasi behar dut”. Apurka magoakaz ibiltzen hasten zara, gehiago ikasten, eta heltzen da momentua non proposatzen dizuten ordaindutako ikuskizuna egitea; hortik aurrera, astiro-astiro, gauzak iriteten

dira, gero eta gehiago ikasten duzu...

—Zure kabuz ikasi duzu, ala...

—Hemen autodidakta izan behar duzu; Europan eta Ameriketara badaude horrelako ikastaroak edo magia-eskolak, baina hemen ez. Liburuetatik-eta ikasi behar duzu eta gero, biltzen zarenean beste mago nagusiagoakaz, gehiago dakitenakaz, orduan eurek esaten dizute nondik jo. Eurek asko laguntzen dizute bibliografia gehiago bilatzen. Kongresuetara ere joan naiz, hitzaldiak ere egon dira Bilbon. Beste magoek zer egiten duten eta munduan momentu horretan magiari buruz zer dagoen ere jarraitzen duzu...

—Lehen ikuskizunaz akordatzan zara?

—Lehen-lehenengo Gabon Zahar egun

batean izan zen amamaren etxean, afaldu eta gero. Urtero egiten ditut familiarentzat! Ordaindutako lehenengo, erdi-profesionala-koa, ez zen izan lar ona. Oholtza gainean ez zara oso ibilia, etxean defendatzen zara pare bat jokogaz, baina ez da berdina hiru ordu laurdeneko saio luzea. Hor konturatu nintzen zelako desberdintasuna dagoen profesionaltasunaren eta amateurraren artean. Oso luze egin zitzaidan; 2. joko, 10 minutuko izango zela uste nuena, 2 segundotan amaitu nuen! Konfunditu egin nintzen eta beste bat egiten hasi nintzen, ez dakit jendeak nabaritu zuen... Oso oroitzapen txarra daukat, baina hortik ere pasatu behar dugu!

«Hemen autodidakta izan behar duzu, ez dago horrelako eskola-ikastarorik»

—Senitarteko-lagunek zer esaten dizute?

—Haiseratik izan dut euren babesa. Gauza arraro bat legez ikusi dute, zaletasun berezi legez. Zaletasuna profesionalagoa izatera pasatu denean, eurek ere ez zuten espero, sostengua ematen jarraitu dute. Eurak dira nire joko barriak ikusten dituzten lehenengoak eta probatzeko ere erabiltzen ditut.

—Magia: ilusioa ala tranpa; ikusleagaz ituna?

—Magia ikuskizunak irauten duen bitartean lortu behar dena da ezinezkoak diren gauzak “posible” direla erakustea. Argi dago, sekretuak badaudela, baina ahalegindu behar zara publikoak sekretua ahaz dezan, eta euren umetako oroitzapenak gogoan, pentsa dezaten horrelakoak egitea posible dela; posible posible... argi dago gaur egun mundu guztiak badakiela ez dagoela horrelako “botere arrarorik” edo naturaz gaindikorik. Baina polita da zure muturren aurrean hain ezinezkoa den zerbait zelan egiten den ikustea. Ilusioa sortzea eta magia lotuta daude. o

Ahobien Gala

Bertsolaritzan aitzindari izan diren hainbat emakume sarituko ditu aurten **ALBEK**



Lujanbiogaz batera jardungo dute bertsoan Maiak, Iturriagak eta Elortzak

ALBEK, Algortako Bertsolari Eskolak antolatzen duen Ahobien Gala hilaren 14an izango da arratsaldeko 07:00etan. Urtero legez, 2000. urtetik aurtengora arte, urte amaieran ALBEK prestatzen duen bertso jaialdia eta sari banaketa da Ahobien Gala.

Aurtengo honetan Areetako Andres Isasi Musika Eskolan egingo den ekitaldian hurrengo bertsolarien eskainiko duten saioagaz gozatzeko aukera egongo da: Maialen Lujanbio (Hernani, 1976), Jon Maia (Zumaia, 1972), Unai Iturriaga (Durango, 1974) eta Igor Elortza (Dur-

ango, 1975); bikote gipuzkoarra eta binako bizkaitarra aurrez aurre, puntako bertsolariak laurak ala laurak.

Horrez gainera, bertso saioaz harago, Ahobien Galan sari banaketa ere egiten dela adierazi dugu lehentxeago, eta iragarri dutenez, aurtengo saria bertsolaritzan aitzindari izan diren emakumeei emango diete.

Amaitzeko aipatu, sarrerak gonbidapen bidezkoak izango direla eta jaialdien egunean bertan Andres Isasi Musika Eskolako (Areeta) txarteldegian jaso beharko direla. o

IRATI ELORRIETA GETXOZTARRA IRAKURZALEEN TXOKOAN HILAREN 18AN

Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak ekitaldi berri bat iragarri du hil honetarako. Hilaren 18rako (20:00) Irati Elorrieta (Algorta, 1979) idazle gaztearen berbaldia eta tertulia antolatu dute. Getxoztarrak bere lehenengo liburuen gainean, *Burbuilak* (Alberdania, 2008), jardungo du. Ez dira Elorrietagaz jarduteko aukera askorik, izan ere aspalditik Alemanian bizi da. Horrenbestez udalerriko idazle gazte baten iritziak eta bere lehenengo liburuen gaineko nondik norakoak ezagutu gura duenak badaki nora jo.

GETXOTIK MUNDURA EKIMENAREN ERAKUSKETA ERROMON

Getxoko Udalaren Garapen Lankidetzaren arloaren ekimenez antolatzen den *Getxotik Mundura, Mundutik Getxora* ekimenaren barruan Gervasio Sanchezen *Bizitza Minatuak* erakusketa egongo da ikusgai. Erromoko erakustaretoan ipiniko dute hilaren 2an eta bertan gozagai egongo da hilaren 12ra arte, hurrengo ordutegian: astegunetan 11:00-13:00 eta 18:00-21:00; eta zapatuan goizez bakarrik, hau da, 11:00etatik 13:00etara.

KANDELEN ARGIPEAN TALDEAGAZ IPUIN KONTALARI-IKUSKIZUNA HILAREN 19AN

Pertsona Migratzaileen Nazioarteko Egunaren harira, Getxoko Udalaren Immigrazio arloak ipuin kontalari-ikuskiuna antolatu du. Kandelen Argipean taldeak kontatuko ditu haurrentzako ipuinak. Hitzordua hilaren 19an izango da arratsaldeko 07:00etan eta topagunea Algortako Villamonte kultur etxeko Haur Liburutegian ipini dute. Sarrera doakoa izango da.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Kultura Topagunea > jendaurrean aurkeztu dute

“Herritarrek egiten dituztenak bultzatu behar ditugu; zer da herria, ez badira herritarren ohiturak?”

Kultura Topagunea aurkeztu barri dute herriko hainbat kultur taldek. Herritik sortutako kultura bultzatu asmoz. Lamiakoko Kultur Etxera hurbildu gara gehiago jakin guran, bertan elkartzan dira eta.

—Zertan datza Kultura Topagunea?
—Leioako kultur elkarteon bilgunea da. Momentuz, Kurkudi Kultur Taldea, Lamiako Maskarada, Berbalamiñe Euskara Elkar-tea, Gure Ohiturak Dantza Taldea eta Mari-txu Teilagorri Txosna Batzordeak osatzen dugu, baina herriko gainontzeko elkarteei zabalik dago. Hori ere bada gure asmoa, ahalik eta talde gehien batzea. Hasieratik gonbidapena zabaldu diegu guztiei.
—Nola sortu da, eta zertarako?
—Lamiako Maskaradaren bilera batean sortu zen ideia, Euskal Jaiaren antolaketan laguntzeko deitu ziguten beste taldeek. Elkarregaz egiten dugu Euskal Jai. Bestetik, taldeen ekimenak sustatzeko helburua daukagu, baliabideak eskaintzen dizkiogu elkarri herrian kultura sustatzeko. Gainera, hilabete-ro kaleratzen dugu agenda talde bakoitzak antolatzen dituen ekimenakaz. Interneten bloga ere sortzen ari gara.
—Aurrera ateratzeko zailtasunak dituzue? Zergatik bilgune hau sortu beharra?
—Kultur elkarteei Udalak beharrezko



Kultura Topaguneko partaideak Lamiakoko Kultur Etxean

garrantziarik ematen ez zigula ohartu ginen. Esaterako, Kultur Leioan jartzen dute arreta, baina bigarren planoan geratzen gara elkarteok. Ez dugu diruagatik esaten, ekimenengatik baizik. Herrian bertan publizitatea behar dugu, ezagutzera emateko. Kultur elkarteak bultzatzeko eta beste ate bat irekitzeko beharraz ohartu ginen. Hauxe da egoera.
—Udalaren kultura-politikak ez dizue laguntzen?
—Udalak gura duen kultura atzeritrik

datorrena da, diru asko kostatzen dena, eta batez ere, profesionalek egiten dutena. Herritarrok doan eta betidanik egin dugun kultura hori, ez da gura duena. Beraz, hau bultzatzeko beharra daukagu. Umore Azoka eta Nekazal Azoka bezalako ekimenak antolatzen dituzte, baina ikus daiteke auzo honetako Kultur Etxea zein egoeratan dagoen. Herritarrek egiten dituztenak bultzatu behar ditugu. Izan ere, zer da herria, ez badira herritarren ohiturak? ○

Laguntza sozialak

Udalaren laguntza **ekonomikoa jaso** dutenen **kopurua igo da 2008an**



Oinarrizko errentarako bideratzen dute diru gehien

Mila familia baino gehiagok jaso ditu Udalen laguntza sozialak aurten. “Hartzaila igoera nabaria erakusten du aurreko urteakaz alderatuta”, jakinarazi dute Udaletik, baita “*beharrezko ezaugarriak betetzen zituzten eskaera guztiei erantzuna eman ahal izan*” diotela ere. Hainbat laguntza mota dira: behar larrietarako laguntza, urgentziarako laguntza, jendarteratzeko laguntza, oinarrizko errenta eta hirugarren pertsonaren baten zaintza bere gain duenarentzako laguntza.

Guztien artean oinarrizko errentarako bideratzen dute diru gehien, hiru milioi eurotik gora, eta 568 familiari eman diote; Bizkaiko Aldundiak indartzen du eta iaz baino 150 familia gehiagok jasoko dute

aurten laguntza hori, Udalaren aurreikuspenen arabera. Larrialdietarako laguntzak, barriz, 358 eman dituzte eta 8 ukatu; Eusko Jaurlaritzak banatutako partida da.

Urgentziarako laguntzak 36 leioztarrek jaso du, 36.439 euro guztira. Hirugarren pertsonaren baten zaintza bere gain duten 18 laguntzako, aldiz, 32.650 euro bideratu du Udalak. Jendarteratzeko laguntza 32 pertsonari eman dio, 7.614 euro; Aldundiak kasu honetan ere lagundu ohi du.

Bestelako zerbitzuetara ere bideratu dute diru-partidarik. Etxez etxeko laguntza, dependenziaren balorazioa, horretarako 580.000 euro gorde ditu Udalak. Adingabekoen programa psikopedagogikoan, ostera, 25.000 euro inbertitu du. ○

AURTEN 37 EMAKUMEK SALATU DITU TRATU TXARRAK LEIOAN

Herriko 37 emakumek indarkeria matxista jasan dutela salatu du aurten, Udalak azaroaren 25aren (Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna) atarian aditzera eman duenez. Ertzaintzak 31 kasutan esku hartu du eta emakume horietatik 25ek jarri du salaketa. Udaltzaingoak, barriz, hamabi bider esku hartu eta emakume horietatik bederatzik jarri du salaketa. Beste hiru salaketak ofiziozkoak dira.

LIBURUJATUN LEHIAKETA

Aditzera eman dituzte LiburuJatun lehiaketan irakurri beharreko liburuak: bost euskaraz eta beste bost gazteleraz. Maila bi horietan banatu baitute lehiaketa. Liburuok irakurri eta zenbait galderari erantzun beharko diete partehartzaileek; otsailean argitaratuko dituzte galderok.

Informazio gehiago: www.kulturleioa.net

UMORE AZOKAN IZENA EMAN DAITEKE

Antzerki taldeek eta artistek 2009ko Umore Azokan jarduteko izena eman dezakete urtarrilaren 30era arte. Informazioa eskuratzeko: artistica@umoreazoka.org / info@umoreazoka.org, 946072578 edo www.umoreazoka.org.

AVANZADARAKO IRTENBIDE EZA EGOTZI DIOTE UDALARI

Avanzada Estaltzearen aldeko Plataformak 2.000 sinadurak babestutako idazkia aurkeztu zuen irailean udaletxean, baina Eneko Arruabarrena alkatearen erantzunagaz ez daude pozik: “*Ez dago proiekturik, ez esleitutako aurrekonturik, ezta soluzio zehatzik ere*”. Bere ardura diren aldeak zehazteko (aurrekontua, egitasmoa...) eta Aldundiaren arduren jarraipena egiteko eskatu diote.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparagirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfnoa. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tif: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Esther Lopez > Emakumeentzako autodefentsa feminista ikastaroko begiralea

“Beldurraren kultura hezi gaituzte emakumeok eta biktimaren rolean sartu gaituzte”

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna zela eta, hainbat ekitaldi egin zituzten azaroaren 25ean. Baina horiei segida eman gura diete Erandion, emakumeentzako autodefentsa ikastaroagaz. Esther Lopezek emango du Altzagan abenduaren 1ean, 3an, 10ean, 12an, 15ean eta 17an. Astrabuduan hilaren 20an eta 21ean emango du.

—Zer lantzen duzue autodefentsa ikastaroan?

—Wen-do edo autodefentsa feminista lantzen dugu. Hiru bide jorratzen ditugu teknika honetan. Batetik, teknika fisikoa. Egiteko eta oroitzeko mugimendu errazak lantzen ditugu, emakumeon gorputzagaz eta mugimendu naturalakaz bat datoz, gauza errazak eta praktikoak dira. Beraz, praktikatzen duten emakumeek ez dute zertan adin jakin bat eduki, ezta forma fisiko ona ere. Bigarren bidea psikologiarena da. Teknika fisikoak ezagutu arren, parkitikan gauzatzeko unean blokea gaitezke, hori ekiditeko lantzen dugu bide hau. Autoestimua jorratzen dugu, ez badugu gure burua maite ez dugulako defendatuko. Emozioak ere jorratzen ditugu, beldurrak dihardugu, beste pertsona bati min ematea kostatzen zaigulako; mito askori buelta ematen diogu, inda-



Ikastaroan izena emateko: 94 417 56 16 edo berdintasuna@erandioko-udala.net, doakoa da

rik ez daukagula dioenari... Beldurraren kultura hezi gaituzte emakumeok eta biktimaren rolean sartu gaituzte. Rol horretatik ateratzea da garrantzitsuena, tresna eta baliabide asko daukagu horretarako.

—Eta hirugarren bidea, zein da?

—Hirugarrena taldeko lana da, horregatik egiten dugu ikastaroa taldeka. Besteei entzunda asko ikasten dugu, besteen esanetan geure burua ikusten dugu, kideasuna sortzen da denbora gutxian. Emakume izatea berresten dugu, feminismoaren eskola txikia

ere bada ikastaroa; izugarria da hori guztia.

—Zergatik landu autodefentsa?

—Beharra dagoen bitartean, aurrea hartzeko modua da. Ez bakarrik beldurraren diskurtsoagatik, erasoak... haratago joateko baizik. Denbora igaro eta arazoa gero eta potoloagoa bihurtzen da ez uzteko. Energia askogaz ateratzen gara ikastarotik, emakumeok ahalmen handia daukagula jabetu, eta aurre egiteko benetako tresna ematen diegu. Emaizta oso positiboa da; nekatuta, baina indarberrituta ateratzen gara. ○

Lutxanako igogailuak

Datorren udan martxan egongo dira metroko nasara sartzeko igogailuak



Lutxanako metro geltokia

Azkenean lortu dute lutxanaztarrek. Metroko nasara sartzeko igogailu bi ipiniko dituzte. Auzoaren alde biak lotuko dituzte, era horretan. Auzotarrek, zein *Lutxana existe* plataforma aspaldi salatu zuten metroko sarbidea ez zela egokia, eta igogailuak jartzeko aldarrikatu zuten. Trenbidearen bestaldera dagoen nasara sartzeko arrapala besterik ez dago; 300 metro luze ditu eta estali gabea da, bertara sartzeko eskailerak daude. Orain arte Lutxanako auzotarren eskaerari uko egin izan die Metro Bilbaok, geltokiak sarbide egokiak zituelakoan.

Igogailuek zortzi lagunentzako tokia izango dute, eta egitasmoari azken zertzeladak ematen dabil Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

Esan bezala, metroko nasa batetik bestera igarotzeaz edo bertara sartzetaz gain, Lutxanako alde biak lotzeko balioko dute igogailuek. Izan ere, auzoa erabat banatzen du metroko bideak. Horregatik, txartela baliogabetzeko makinak igaro aurretik jarriko dituzte, hau da, ez da txartelik beharko igogailuak erabili ahal izateko. Auzoko alde batetik bestera pasatu behar dutenek lasai asko erabili ahal izango dituzte.

Igogailuak pasarela batek lotuko ditu, gainera, Udalak finantzatuta. Asier San Nicolas Hirigintza zinegotziak dioenez, “*egiturara erraz sartzeko neurriez hornitzeko arreta berezia jarri dugu Partzuergoak eta Udalak, hartara, pertsona guztiek erabil dezaten*”. ○

INDARKERIA SEXISTARI BURUZKO TAILERRAK IKASTETXEETAN

“Ikasleak berdintasunean eta gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzeko oinarria duten harremanetan hezteak”. Helburu horregaz gauzatu dituzte genero-indarkeria saihesteko tailerrak bigarren hezkuntza, batxilergo eta lanbide heziketako ikasleakaz. Udaleko Berdintasun zerbitzuak antolatu ditu eta autoestimua, gaitasun sozialak eta konfiantza landuko dituzte.

GOIKOA ETA MAGDALENA ARTEKO ERREPIDEA HOBETUKO DUTE

Datorren urtean eraikiko dute Goikoa eta Magdalena arteko errepidearen lehen zatia. Horretarako, milioi eta erdi euro gorde ditu 2009ko aurrekontuan Udalak. Errepideak egungo landa-bidea ordezkatuko du. Zehazki San Jose egoitzaren eta Agarre arteko kilometro bat atonduko dute lehenengo fasean. Bide bi eta 1,8 metroko espaloia izango ditu. Egitasmoak beste fase bi ere izango ditu.

GABON-KONTZERTUAK ESKAINIKO DITU MUSIKA ESKOLAK AUZOZ AUZO

Abenduaren bost kontzertu emango dituzte Udal Musika Eskolako ikasleek, beste hainbeste auzotan. Goikoa auzoko San Jose nagusien egoitzan hasiko dira abenduaren 4an, urteroko kontzertu txikiagaz. Auzo berean, baina Andra Mari elizan joko dute hilaren 11n, 20:00etan. Hurrengo egunean, barriz, Lutxanako Eskoletako antzerki gelan arituko dira musika eskolako hainbat talde 19:00etan. Astrabuduan abenduaren 18an eta 19an emango dute kontzertua ikasleek, Josu Murueta Kultur Etxeko areto nagusian 19:30ean. Hor bertan gainera, entzunaldia eskainiko dute piano ikasleek hilaren 12an. Sarrera doakoa izango da guztietan.

Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Poda
- Itxiera
- Garbiketa
- Tratamendu fitosanitarioa

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Eskukoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es



Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Agur arazoei... **902 54 08 54**



www.arlan.biz

EUSKARAREN ASTEA

Abenduaren 12ra bitartean luzatuko dira Euskararen Astea dela eta Udalak antolatutako ekitaldiak. Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, *Ogiyik karri etzuen semia* ikuskizuna antzeztuko du Txirene taldeak 19:00etan, Hall Kulturalean. Bestalde, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak hainbat ekimen prestatu du egun horretarako Sopelanako ikastetxeetan: txotxongiloak, bertsolaritza eta txalaparta tailerrak, ipuin kontaketa eta nerabeei euskaraz ligatzeko teknikak eskainiko dizkiete. Abenduaren 4an, barriz, Burkina Fasoko bidaiari buruzko hitzaldia emango du Jon Arretzek Hall Kulturalean, 19:00etan. *Betizu eta Oilarren Kukurrakua* ikuskizuna abenduaren 6an eskainiko dute, Udal Pilotalekuan, 18:00etan. Abenduaren 9an, oster, ipuin kontaketa treratzeko tailerra emango die helduei Antton Irustak Hall Kulturalean, 18:00etan. Abenduaren 12an umeei zuzenduta izango da tailerra, ordu eta leku berean.

PRESOAK BISITATZEKO LAGUNTZAK EMANGO DITU UDALAK

Bizkaitik kanpo espetxeratutako sopoloztar presoeri aurre bisitan joan zaizkien edo joango zaizkien senideek 75 eta 850 euro bitarteko diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute bisita bakoitzeko, 12 askoz jota, Udal Osoko Bilkurak onartu arautegiari esker. Gehienez 24.000 euro banatuko dituzte, eta kopuru hori gaindituko balitz, laguntzak era proportzionalean murriztuko lituzkete.

URKOKO KIROLDEGIAN INSTALAZIO BARRIAK

Aurre-proiektuaren arabera fitness aretoa, tenis eta padel zelaiak, frontoia eta atletismo pista eraikiko dituzte. Igerilekuetako sabaiko itoginak ere konponduko dituzte. Datorren urteko aurrekontuan diru partida bat eskainiko diote kiroldegia.

Etxebizitza barriak eraikitzeke **egitasmo bi** abiatu dituzte **Zipiriñe** ikastetxetik gertu, **Bareñon eta Asun**

Bareño Asu aldeko lanak

Hirigintza egitasmo barri bi abiatu ditu Udalak, eta ondorioz, *“plangintza orokorrak arautzen duenari jarraituz”*, etxebizitzak eraiki ahal izango dituela iragarri du. Lotuta geldituko dira Atxabiribil eta Arrietara etorbideak eta Uribe Kostako korridorea egitasmo biokaz.

Zipiriñe ikastetxetik gertu dagoen zonaldea du kokagune egitasmoetako batek. Zabalbide, Akilino Arriola, Errotabarri eta Loiola Ander Deuna kalekiko mugakidea da. Gainera, Zabalbide kalearen azken ukitua ematea erraztuko dute lan horiek, Udaletik jakinarazi dutenez. Bigarren lanak

Bareñon eta Asun egiten dabilta, urbanizatzeko moduan dagoen eremu batean. Asuren kasuan, Loiola Ander Deuna, Zientoetxe bidea, Arrietara Etorbidea eta Asu bideen artean dago eremua. Bareñoakoa, barriz, Zientoetxe bidea, Atxabiribil etorbidea eta Loiola Ander Deunaren artean dago.

Udalaren iritiz, gertuago egongo dira herrigunea eta hondartzak urbanizatzeko lan bi horiekaz, Gainera, Loroño biribilgusetik gertu zubi bat eraikiko dute *“gerturatzeko horri laguntzeko”*. Herritarrei ahalik eta eragozpen txikiena egiten saiatuko direla esan dute Udaletik. ○

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T.: 94 491 27 34

Igor Erauzkin > Sopesex zerbitzuko sexologoa

“Sexu-aholkularitza zerbitzuen artean elkarlana sortzeko egingo dugu topaketa”



Kultur Etxean dago Sopesexen bulegoa, 1. solairuan

Otsailean hasi ziren Sopesex zerbitzua eskaintzen. Bizkaian beste bost herririk dauka sexu-aholkularitza zerbitzua, abenduaren 17an Bilbon elkartuko dira bertako sexologoak hausnarketa egiteko.

—**Zertaz hausnartuko duzue jardunaldietan?**

—Badarogau denbora interbentzio konkretuak egiten hainbat herritan, bulegoa zabaldu dugu leku batzuetan; eskoletan sexu-heziketa ikastaroak ere egiten ditugu, eta aurren, zerbitzu guztien artean elkarlana bultzatzeko proposatu zuten. Hori da topaketa honen arrazoia; zerbitzuen teknikarien artean elkarlana sortzeko, eta bakoitzak bere lan mota azaltzeko eta elkar trukatzeko.

—**Zein herritan dago zerbitzua?**

—Bermeo, Gernika, Zornotza, Erandio, Leioa eta Sopelan eskaintzen da. Hainbat egoeratik abiatu ziren; horregatik topaketaren beharra, lan egiteko modu desberdinak ditugulako. Udalakaz, eta batez ere, Gazte Informazio Zerbitzuakaz lan eginda ateratu zen proposamena. Halere, leku guztie-

tan ez da behar egin Gazte Informazio Bulegoen bidez. Erandion, esaterako, ikastetxeak egindako lanaren ondorioz sortu zen proposamena, hortik bideratuta. Udalari bakoitzean era desberdinean sortu zen zerbitzua, horiek aztertzei interesgarri deritzogu.

—**Sopelan ez da denbora asko bulegoa zabaldu zenutela.**

—Iaz hasi ginen Udaleko Gazte Zerbitzuko teknikariakaz harremanetan, zerbitzua nola sor zitekeen, Sopelana aholkularitza sarean zelan sartu zitekeen aztertzeko. Elkarlan horretan eman genuen otsailera arte, bulegoa zabaldu arte. Kultur Etxeko lehenengo solairuan kokatu genuen, eta hamabostean behin egiten dugu aurrez-aurreko kontsulta, aldeztetik kontaktua eginda korreo elektronikoko bidez.

—**Jende asko hurbildu da?**

—Geroz eta gehiago zabalitzen ari da, badi-rudi hasierako publizitateak eragina izan duela. Datorren urtean ere lanean jarraituko dugu bulegoagaz. ○

DIDAK HAMILTON
IDIOMAS**Ingelesa, Frantsesa eta Alemana**

- *Taldeak, enpresak eta partikularrak*
 - *Eskolaz kanpoko ekintzak*
 - *Maila guztiak*
- *Ingelesa 3 urtetik aurrera*
 - *Talde txikiak*
- *Ingalaterran egonaldiak*

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- *Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa*
- *Irakaskuntza eta hezkuntza*
- *Informazioa eta partaidetza*
- *Eleaniztasuna*
- *Esperientzia eta berrikuntza*

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK
Taberna

Bentatu 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

**ABIAN DA UMEEN
GABONETAKO IDAZLAN
LEHIAKETA**

Haurrek abenduaren 12ra arte aukera daukate bere idazlanak aurkezteko. Olentzerori gutuna da aurtengo gaia, eta 1996 eta 2002 urteen artean jaiotako umeek parte har dezakete. Berangoeta Kultur Etxera eraman beharko dituzte lanak. DINA4 orrietan aurkeztu beharko dute idazkia, eta beste orri batean, partehartzailearen datuak jarri beharko dituzte, izen-abizenak, adina eta telefono zenbakia. Ume bakoitzak lan bana aurkeztu ahal izango du. Sariak, berriz, urtarrilaren 7an banatuko dituzte, ipuin kontalariaren emanaldiaren ostean. Liburuak eta jostailuak izango dira. Era berean, opari bat jasoko dute partehartzaile guztiek. Berangoeta Kultur Etxera hurbildu beharko dute jasotzera, urtarrilaren 7tik aurrera.

Informazio gehiago: 94 668 21 43 edo berangocultura@telefonica.net

**TASAK %4 IGO, BAINA
GUTXIAGO PAGATUKO
DUTE ZENBAIT LAGUNEK**

Datorren urtean %4 igoko dituzte tasak orokorrean, Udaleko Osoko Bilkuran onartu dutenez. Halere, hobariak eskuratuko dituzte alargunek, erretiratuek, mila eurotik beherako soldata daukatenek eta familia ugariak, baina diru-sarrearen arabera azken horiek. Zarama-zerga, berriz, %5 igoko dute. Udalgobernetuak Ezker Batuagaz ituna egin zuen, gehiengo osoa eduki arren.



JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Euskaraz blai!

Hamaika **ekitaldi** prestatu dituzte **Euskararen Astean**, abenduaren 8ra bitartean



Herri-kirolen erakustaldia egingo dute hilaren 4an

Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna, baina aste osora luzatu ohi dituzte ekitaldiak herri gehienetan. Ez dira gutxi Berangon antolatu dituzten ekimenak.

Abenduaren 1ean abiatu dute astea, ipuin kontalariagaz, haur-liburutegian. Euskararen Egunean bertan eta leku berean, euskal kulturari buruzko ekimena egingo dute, *Badator Olentzeroi!*, eta 17:30ean hasiko da. Ludotekan, ostera, altxoraren bila jokoa egingo dute, txanda bitan, adinaren arabera banatuta. Txikienek 16:00etatik 17:30era jolastuko dute, eta nagusienek,

17:30etik 20:00etara egingo dute. Egun berean emango dute *Goazen!* filma Berangoeta Kultur Etxean, 19:00etan.

Hurrengo egunean ere egongo da zereginik, abenduaren 4an. Haur-liburutegian euskal folklorea joko-hitzaldia egongo da, eta ludotekan, herri-kirolakaz jostatzeko aukera. Ludotekan euskal festa ere egingo dute, baina abenduaren 5ean. Hurrengo egunean, ordea, txotxongiloen txanda izango da, Txerriketan berrikeran lana antzetzeko baitu Kixka taldeak Berangoeta Kultur Etxean. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara txangoagaz amaituko dute aurtengo Euskararen Astea. ○

Ana Trueba eta Edit Kiriakoba > Margolariak

Naturagaz harreman handia dute Trueba eta Kiriakobaren koadroek



Edit Kiriakoba eta Ana Trueba Goñi Portaleko erakusketan

Artearekiko maitasunak batu ditu Ana Trueba eta Edit Kiriakoba. Bilboko Nazioarteko Emakumeen Klubean ezagutu zuten elkar, eta bertan zeudela erabaki zuten erakusketa antolatzea. Trueba bilbotarra da, baina Plentzian ditu bere haurtzaroko eta gaztaroko oroitzapen politenak, Plentzian ematen baitzituen udak. Gaztetatik margotu du, nahiz eta inoiz ez den profesionalki horretan aritu. Aldaketa klimatikoa eta gerra bezalako gaurkotasan handiko gaiak dira bere lanaren oinarria. Kiriakoba AEBtik etorri zen orain 8 hilabete, nahiz eta jaiotzez bulgariarra den. Plentzian dagoenetik, Araldi Kultur Elkarteko lagunak egin du behar; pintura eskolak ematen ditu. Natura da bere lanen abiapuntua.

Goñi Portaleko Kultur Etxeko *hallean* egon da ikusgai azaroan zehar artista bien erakusketa. Truebak, forma geometrikoak oinarri dituen sei lan aurkeztu ditu. Horietan, gizarte arazoek sortzen dioten

kezka islatu gura izan du. Suprematismo izeneko korrante artistikoaren eragina dute bere lanek; objektu geometrikoak hondo zuriaren gainean margotzen ditu. Kiriakobak, Plentzian margotutako koadroak batu ditu erakusketarako; naturagaz eta animaliakaz duen harremanean eta ametsetan oinarrituta daude guztiak. Honez gain, zenbait jantzi sortu ditu.

«Erakusketa Uribe Kostako beste herri batzuetara eroateko asmoa dute»

“Scruffy Ropa” izena aukeratu du bere diseinuen estiloa definitzeko. *Scruffy-k* “zorritzot” esan gura du; artistaren ustez, hori da, hain zuzen ere, bere soinekoak definitzeko berbarik egokiena. Erakusketa Uribe Kostako herri gehiagotara eroateko asmoa daukate; Getxoko areto batean ikusi ahal izango dugu datozen hilabeteotan. ○



**TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Teléfono: 946 701 120

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



Alangobarri 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

MANKOMUNITATEKO NEGUKO AGENDA

Uribe Kostako Mankomunitateak Neguko Euskal Agenda kaleratu zuen azaro amaieran. Honetan, helduentzako zein nagusientzako hainbat ekitaldi batu dituzte, denak euskaraz. Ipuin kontalariak, pailazoak, antzezlanak eta tailerrak egongo dira Gorliz, Lemoiz, Sopela, Plentzia, Berango eta Urdulizen. Abenduaren 9rako adibidez, "Ipuinak: gozamenerako tresna" helduentzako ipuin kontaketa tailerra antolatuta dute Sopelan.

Informazio gehiago: www.uribekosta.net

GABONETAKO POSTALEN LEHIAKETA URDULIZEN

Gabonetako postalen II. lehiaketa antolatuta du Urdulizko Kultur Etxeak 4 eta 14 urte bitarteko umeentzat. Marrazketa teknika tradizionalak, zein tresna digitalak erabil daitezke. Lanak azaroaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira Kultur Etxean (Aita Gotzon 16); postaz ere bidal daitezke. Irabazlearen izena abenduaren 31n jakinaraziko dute, eta aurkezten diren lan guztiak abenduaren 22tik urtarrilaren 8ra egongo dira ikusgai Kultur Etxean bertan.

HIRIGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA GORLIZEN

Hirigintza Aholku Batzardea sortu dute Gorliz, arau subsidiarioaren gaineko iritzia emateko. Alkatea, Hirigintza Zinegotzia, alderdi politikoetako ordezkariak, eta herriko elkarteetako eta hezkuntza zentroetako ordezkariak osatuko dute batzardea.

PLENTZIA-GORLIZ

Blood Bowl jokoan oinarritutako txapelketa hilaren 6an



Azaroaren 6an Goñi Portalen izango da txapelketa

Gorliz eta Plentziako gazte talde batek, "Partidaza Uribe Kosta" izeneko kolektiboa sortu barri du, mahai-jolas zaleak batzeko, eta honen inguruko ekimenak sortzeko asmoz. Abenduaren 6rako txapelketa berezia antolatu dute Goñi Portalen "Blood Bowl" jokoan oinarrituta. "Games Workshop" etxe ingelesak sortu zuen jokoak duela 15 urte, "Warhammer" jolasa oinarritzat hartuz, baina mundu fantastikoa landuz. Errugbiagaz harremana du, eta pertsona biren artean jolastu ohi da. Hilaren 6koa

lagunarteko txapelketa izango da. Goizeko 09:30ean hasiko dira, eta lau partida jokatuko dituzte guztira; gainera, elkarregaz bazkalduko dute parte-hartzaileek.

Euskal Herrian mota honetako jolasak lantzen dituen hainbat talde dago, Basque Barbarians (Bizkaia) eta Irungobos (Gipuzkoa), besteak beste. Goñi Portalen egingo denaren antzeko txapelketak egin dituzte aurreko Getxon, Artzeniegan eta Durangon. ○

Izena emateko: www.partidaza.es

Abe. 1 - Abe. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

URDULIZ

► **Kostaldeari buruzko erakusketa.** Abenduaren 16ra arte.

GETXO

► **Ricardo Martin Somokurtzioren eskulturak.** Abenduaren 15etik aurrera, Algortako erakustaretoan.

ERANDIO

► **Anantapurrekin konprometitua.** Abenduaren 15era arte, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.

GORLIZ

► **Anantapurrekin konprometitua.** Abenduaren 17tik aurrera, Erakusgelan.

MUSIKA

LEIOA

► **Gabonetako kontzertua. Udal Musika Eskola.** Abenduaren 16an, 20:00etan. 3 euro.
► **Terela Gradin + Gem Trio.** Blues Jazz Zirkuitua. Abenduaren 19an, 22:00etan. 6 euro.

GORLIZ

► **Gramola haur dantzaldia, Txorromorro taldea.** Abenduaren 7an, 17:30ean, Pilotalekuan.

BESTEAK

URDULIZ

► **Eriz magoa eta tailerrak.** Euskararen Eguna. Abenduaren 3an, Elortzako eskolan.

LEMOIZ

► **Poteo euskalduna.** Abenduaren 19an, 19:30ean, Kultur Etxean.
► **Gabonetako tailerrak.** Abenduaren 20an, Armintzako pilotalekuan.



Ortuko produktuak eta animaliak ikusgai egongo dira

► **Azokak eta feriak**

Leioako Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka

Urtero legez, iritsi da Leioako nekazaritza eta abeltzaintza Azoka, 21 urte beteko ditu aurreko. Abenduaren 14an egingoko dute, domekaz, herriko Boulevarden, eta J.R. Aketxe eta Errekalde plazetan, ohi denez. Goizeko hamarretan hasi eta aspertzeko betarik ez da izango arratsaldeko hirurak bitartean. Trikitilariak, haurrentzako talo eta txalaparta tailerrak, zalditxoak, herri kirol erakustaldia, Mungiako eta Txorierriko indaba dastaketa, abere erakustaldia, nekazari eta artisauro produktuen erakustaldia, dastaketa eta salmenta... Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendapenezaren Bizkaitar Ekoizleen X. Lehiaketa ere ospatuko dute, eta omenaldia egingo diete Leioako nekazariari.

• **Non:** Bulevard, Errekalde eta Aketxe plazetan • **Noiz:** Abenduaren 14an

BERANGO

► **Ikastaroa: Cava eta ardo apardunak.** Abenduaren 15ean eta 16an, Berangoeta Kultur Etxean.

GETXO

► **UK Proiekzioa.** Euskal kulturaren Jardunaldiak. Abenduaren 4an, 20:30ean, Algortako Kasinon.
► **Mendia + bertsoa.** Abenduaren 7an, Egizuk antolatuta.
► **Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, finalerdia.** Abenduaren 7an, 17:30ean, Erromon, 10 euro.

► **Getxolandia.** Abenduaren 20tik urtarrilaren 5era, Areetako Geltokia eta Santa Eugenia plazetan.

GORLIZ

► **Azoka, disko gaua eta Txokolatada.** Abenduaren 8an, Eliz plazan, egun osoan zehar.

BARRIKA

► **Olentzeroren tailerra.** Abenduaren 20an, 11:00etan, Udaletxean (lehenago Liburutegian).

PLENTZIA

► **Nicolas Deuna.** Abenduaren 6an.
► **Ardo dastaketa.** Abenduaren 10ean, 19:00etan, Goñi Portalen.

SOPELANA

► **Gabonetako jolasak.** Abenduaren 20an, 17:00etan, pilotalekuan.

ZINEMA

URDULIZ

► **Olentzero eta subilaren lapurreta.** Abenduaren 15ean, 16an eta 17an, hainbat emanaldi.

ANTZERKIA

URDULIZ

► **Euskarra sencilloaren manifestua.** Abenduaren 19an, 19:00etan.

PLENTZIA

► **Deabru beltzak.** Abenduaren 15ean, 18:00etan, Goñi Portalen.

GETXO

► **Ipuinak haurrentzat.** Kandelen argipean taldea. Villamonteko haur liburutegian, 19:00etan, doan.

ERANDIO

► **Ate joka, Txalo Teatroa.** Abenduaren 13an, 20:30ean, Altzagako azoka zaharrean, doan.

LEMOIZ

► **Xalto pailazoa.** Abenduaren 3an, 11:00etan, eskolan.

GORLIZ

► **Hipo eta Tomax pailazoak.** Euskararen Astea. Abenduaren 5ean, 18:00etan, Pilotalekuan.

LEIOA

► **Hor al zaude?** Abenduaren 5ean, 20:00etan, Kultur Leioan. 6 euro.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategitar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]




Gabonetako argiak

Dringilindron gaur Gabon, sabela betea dugu eta besteak hor konpon". Gabonak heltzeko egun dezente falta badira ere, baditugu gure artean gabonetako distirak. Borobilak, luzangak, mezudunak, Olentzero tripontziak... gustu guztientzat daude. Edo, agian, disgustu guztientzat. Badago ilusioz begiratzen dituenik; badago gastu hutsala direla uste duenik. Iritziak iritzi, Uribe Kostako kaleetan daude gabonen iragarle fidelak, gure postontzietako jostailu-katalogoen antzera.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Ur-hegazkina

Ereagan

Espainiar faxisten ur-hegazkinen erakusketa batean hartutako irudia dakargu, Getxoko Ereaga hondartzan. Ur-hartu eta garabia batek ateratzen ei zituen bertatik, argazkian ikus daitekeenez; soldadu bat ere ageri da hegazkinaren gainean. Dirudienez, Ereaga leku aproposa da guda-jolasetarako. Orain zenbait hamarkada Frankoren gudarosteak ur-hegazkinetan iristen baziren, jausgailuz iristen dira gaur egun soldaduak zerutik, duela pare bat urteko udan gertatu legez.

[berbetan]

Arkitekto entzutetsua da Iñaki Uriarte (Bartzelona, 1946). Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko kidea da, eta Bilboko Arkitektura-Ondarearen Batzordeko bokala. Hitzaldi ugari eskaini du gai horri buruz, ezagunak dira ondare kulturalaren defentsan egin dituen adierazpenak, baita hirigintza ereduari egiten dizkion kritikak ere. Getxoko Punta Begoñako galerietan hotela eraikitzeke egitasmoaz luze aritu da, eta haren aurkako protestaldietan parte hartu du bere iritzia emanez. Iritzi, zein kritika horien guztien lekuko izan da UKko ale hau, horien lekuko izango zarete elkarriketa honetako irakurleak ere.

Iñaki Uriarte

Hirigintza hankaz gora

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Higiezin burbuila, krisia... pil-pilean dago, jende guztia dabil aztoratuta, zertan datza?

—Neurrigabekeriaren ondorioetako bat da, negozio eta lukurreriagaz nahastuta. Higiezin hedapenak eta garapenak noizbait amaitu behar zuen. Askotan justifikatu gabekoa zen, bigarren etxebizitza kasu. Pertsonak eta kotxeak alde batetik bestera ibiltzeko beharra. Beste etxe asko espekulatzeko eraiki dituzte. Lurralde desitxuratu dute, negozioak egiteko eta alderdi politikoak finantzatzeko balio izan dute. Krisiak heldu behar zuen, baina krisiak onak dira, sosegura deitzen baitute. “Ondo etorri” esan behar diegu, guztioi eragiten diguten arren, zentzudunagoak dira eta.

—Etxeen prezioa merketzea eragingo du?

—Seguru asko bai; gehiegizko etekinak egon dira. Lurzoruaren kostuak mugatzen du prezioa gehien. Iberiar penintsulako beste leku batzuek alde handia dago. Tamalgarria litzateke eragin izatea degradatutako gunek onera ekartzean, edota

Babes Sozialeko Etxebizitzengan, baina ez dut uste horrela gertatuko denik.

—Gure eskualdean Getxoko Andra Marin eraiki gura zituzten milaka etxeen auzia zertan dago?

—Eratzun naturala duten gunek urbanizatzeko politika gisa ulertzen dut. Susmagarritzat neukan borondate hori. Kaltetutako gunetako bizilagunak antolatzen jakin, eta egitasmoa geldiarazi izana ospatzen dut.

—Eskualdean badira antzeko egitasmoak, gune naturalak pixkanaka desagertuz doaz etxebizitzetara leku eginez, hirigintza-politika egokia eskualderako?

“Krisiak onak dira, sosegura deitzen dute, guztioi eragiten diguten arren, zentzudunagoak dira”

—Geografia-garapena, demografia hazi da, lurak okupatuz joan da. Hazkundeak ordenatua eta logikoa behar luke. Etxebizitza-familiabakarrek eta gisakoek ez daukate zentzurik, toki asko okupatzen dute, jasanezina da. Haraino ura edota elektrizitatea era-


man behar izatea zentzu bakoa da. Herriguneez inguruan izan beharko da hazkundera.

—Babes Ofizialeko Etxebizitzak, gehiago eraikitzeke aitzakia dira edo politika egokia daramate?

—Munduko marka hausteko asmoa dagoela ematen du. Grina horretan begirunerik gabe aritu dira Eusko Jaurlaritzako Hirigintza saila eta hainbat zinegotzigo. Paretik eraman gura dituzte Garellano bezalako esparruak etxebizitzak eraikitzeke, baina kuartel horiek beste zerbaiterako erabil daitezke, unibertsiterako adibidez. Ezin uler dezaket herritik urrun dagoen

unibertsitatea, Leioakoa, ez baitu garatzen unibertsitate sentipenik inguruan, tarte baterako bakarrik doaz hara ikasleak.

—Iberberango aldean metro geltokia eraikitzekeotan dabilta, ondoren ingurua urbanizatzea ekarriko du?



—Auzi hori ez dut asko ezagutzen, baina metroak garapen fokoak eragin ditu askotan; Basauriko Etxebarri auzoa kasu, topografiak laguntzen du hirigintza ordenatua egiten. Interesgarria izan daiteke, garraio publikoak eragin baitu pertsonen mugikortasuna, garraio publikoa erabiliko dute lantokira edo eskolara joateko. Getxon lan lardagarria egin dute auzokideek Maidaganeko trenbide-pasagunearen kontuan, urtetako lan tinkoa. Nire begikotasuna daukate horrelako ekimenek.

—Getxoko Punta Begoñako galerietan hotela egiteko egitasmoaren aurka argi azaldu zara, zergatik? Zertan da kontua?

—Punta Begoña Ondare Kulturala da; beraz, herriko ondasuna da. Horregatik daukat iritzia emateko eskubidea eta beharra. Nire profesioak indartzen du iritzia. Pieza oso berezia da, arte-kategoria handikoa. Ausarkeria da manipulatzera, eraso oso larria, basakeria. Hiri-antolamendurako plan nagusia aldatzen utzi du Udalak, erabakia hartu duten buruzagien sentsibilitate eza erakusten du. Hotela edo gisako eraikin konplexua egiteak elementua desbirtuatu edo suntsitzea dakar; hutsalkeria da, karikatura bihurtzen da. Hotelak egiteko moldatu dituzten eraikinen adibideak lotsagarriak dira, beti ezkututzen dute espekulazioa. Lotsagabekeria da ondasun publiko etekin pribatua ateratzeko ebastea. Eraikin horrek beste zerbaiteko balio dezake. Babes soziala egonez gero, jendeak informaziorako eta komunikaziorako aukerarik izanez gero, geldiaraz liteke. Iritzia erabat aldatzen du jendeak egitasmoak benetan ezagutzean. Punta Begoñaren kasuan, Ezker Batuko zinegotzi batek jarrera aldatu du. Eakoek ere desadostasunak agertu dituzte. Getxoxtarren iritzia asko aldatu da.

—Gertu egon arren, Ibaizabal itsasadarraren alde bietan, Uribe Kostan eta Ezkerraldean, hirigintzan aldaketa nabarmenak daude. Hirigintza-eredu bereziak? —Desberdintasunak historikoak dira. Une batzuetan nahita egin dituztela pentsa liteke. Zubien faltak ere aditzera ematen du

hori: XIX. mendearen erdialdera eraiki zuten Arenaleko zubia Bilbon, mende amaieran Bizkaiko Zubia, eta Deustukoa 1939an. Ordura arte ez zegoen zubirik 14 kilometrotan. Rontegikoa, berriz, itsasadarraren alde bien giltza nagusia, orain 25 urte eraiki zuten. Alde bien topografia desberdina da, eraikuntza mugatzen dute. Ezkerraldeko industriak ere auzo proletario

“Etxebizitza-familiabakarrek eta gisakoek ez daukate zentzurik; leku asko okupatzen dute, jasanezina da”

asko sorrarazi zituen. Uribe Kostan landa gehiago dago eta Ezkerraldean joan izan dira nekazal produktuak saltzera... Horrek guztiak baldintzatu du hirigintza garapena. Beti izan dira diferentziak, normalak dira. —Euskal hirietan izen handiko arkitektoen eraikin ikusgarriak modan daude, Bilbo da abidide garbia.

—Buruzagi-klasearen ergelkeria da, erraz liluratzen dira. Jarduera gehienak negargarriak dira. Seguru asko Zubiarte merkataritza-gunea da azken urteotan Europan egin duten egiturarik leloena. Sheraton hotela, Isozaki dorreak... beste adibide batzuk dira. Arkitekto horiek demagogiaz barre egiten diete herritarrei, faltsukeriak besterik ez dituzte esaten. Kazetaritza oso interesatua ere sustatzen dute. Herri-kazetaritzaren parte bat seduzitu dute, adibidez

“Punta Begoña legeko egitasmoetan, lotsagabekeria da ondasun publiko etekin pribatua ateratzeko ebastea”

Japonera bidaiak ordainduz, Vizcaina Edificaciones enpresak egin legez. Zentzugabekeria segida da, Alhondigakoa da azkena. Autoestimurik ez daukaten buruzagiek berezkoa dute, EAJko buruzagiek kasu honetan. Hirigintza, arkitektura eta ondare arloan zentzumen oso urria daukate. Abandoibarra egitasmo politikoa da,

kalkulagailuz egindako hirigintza, zenbakiek bat egiteko; hirigintza askoz hobea egiteko aukera galdu da. Zorrotzurrekoa beste abidibide bat da, batzorde kudeatzailean higiezin enpresari batek parte hartzen du, lotsagabekeria hutsa da.

—Turismoaren aldeko apustua egin dute, desagertzen ari da Bilbo Handiko industria iragana?

—Neurri batean bai, teknologien gainbeheratik hein batean, baina maniobra politikoen eraginez ere bai. Euskalduna eta Labe Garaiak ez zituzten itxi teknologien beharakadagatik bakarrik. PSOEren astakeria gogorra izan zen, garapenerako iturriak zirenak deskapitalizatzeke. Sestaoko Ontziolaren pribatizazioa... Industria desbitalizatu da. Turismoaz bizi daitekeela uste dutenek, okerrago eurentzat; modari, zein krisialdiei lotutako arriskua baita.

—Zaharkitu daitekeen eredia da?

—Maite dudana Euskal Herria ekoizpenari eta aberastasuna sortzeari lotutakoa da. Hutsuneak hutsune, kooperatiben Euskal Herria gustuko dut, CAF, Irizar edo Ontziolaren Euskal Herria, atzerrira esportatzeko gai dira; artisau txikien Euskal Herria ere bada hori, emankorra dena; abe-

rastasuna sortzen doan Euskal Herria da interesgarria. Baina Guggenheimen oinarritzen dena ez da Euskal Herria, Guggenheim arkitektura ikurra da, baina bere atzean iluntasuna dago; hori Euskal Herri yankeea da nolabait.

—Euskal Herri osoari begiratuta, hainbat egitasmo gauzatu gura dituzte: Abiadura

Handiko Trena, Supersur autopista, Pasaia portua, Pirinioetako autopista... Egingarria da hori dena, jasagarria?

—Hiriburu biren artean, demagun Donostia eta Bilbo artean, trenak ordu bi eta 45 minutuan egiten badu bidea, lotsagarria da abiadura handiko trena egitea, egungo trenbidea hobetu gabe gainera. Trenak oraingoan baino abiadura handiagoa eraman lezake, baina ez du zertan abiadura handikoa izan; abiadura handiagoa, kurbaduren erradioa zabalagoa, tunelen eta zubien beharra... Gainera, kontsultarik eta eztabaidarik egin barik egitasmoa inposatu gura dute. Hiriburuak lotzeko bakarrik balioko luke egitasmoak, gainera. Gainontzeko egitasmoek eta eraikuntza-zurrumbilo horrek hormigoia mugitzeko interesari erantzuten dio. Hormigoia sikatzean gogortzen da,

poltsiko batzuetan ere gogortzen da. Egitasmo batzuk erokeriak dira, basakeriak paisaia. EBren jarrera ere guztiz hipokrita da. Eta etorkizunean norbaitek bere gain hartu beharko du lurraldean egin den hondamendirik handienaren ardura.

—Badago orduan ondo egindako egitasmoren bat?

—Jakina, badaude ondo egin diren gauzak,

“Aberastasuna sortzeari lotutako Euskal Herria da interesgarria, ez Guggenheimen oinarritzen dena”

baina hedabide guztiak bere esku daukate horrelakoak zabaltzeko. Beraz, aukerarik eman ez diguten kritikak zabaltzeko baliatzen dut niri galdetutakoak, hausnarketarako

balioko dutelakoan. Ezezko iraunkorrenak esaten digute batzuek, baina ezezkoak hausnarketarako alderdiak gordetzen ditu, luzera positiboak gerta daitezkeen alderdiak.

—Etorkizunak zer opa digu?

—Batez ere jendarteak gura duena izango da etorkizuna, jendarte mugitzen bada gauzak lortuko ditu. Hainbat lorpen izan dugu, Bilboko auto lasterketak gelditzea kasu.

Jendartearen eta ingurugiroaren arrakasta izan da, sarraski ekonomiko handiagoa ere ekidin dugu. Besteak beste, Punta Begoñagaz gauza bera gertatzea espero dut. ○



euskaraz

pauso bat harago 13!

Kontseiluaren 10. urteurrena * abenduak 13 * BEC * 18:00

laguntzailea





10 urte

EGITASMOEN GIZURTE ERABILKETA

KONTSEILUA

Hautzaindegi-zerbitzua izango da

Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzea:

nierebanoa.com webgunean


902 82 02 40 telefonoan



Armen boterea

Argentinan “Korralito” izenarekin ezagun egin zen krisialdi latza eta gero hartu zituzten erretratuok. Lapurretek eta orohar indarkeriak ikaragarri egin zuten gora orduan eta bai klase ertaineko zein goreneko Buenos Airesesko biztanle asko eta asko, euren etxeak babesteko armak erosten hasi ziren. Argazkilariak hauetako batzuei erositako pistolarekin euren etxean erretratatzeko baimena eskatu zien. Boterea, segurtasuna al da arma bat eskuan sentitzen dena?

Argazkiak: **Ananké Asseff**









I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 94 430 23 45
Telletxe 1 T: 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 944607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
T: 94 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Literatura pantaila handira

Anjel Lertxundi idazlearen *Zorion perfektua* film bihurtuko du **Jabier Elortegi**



Jabier Elortegi

Anjel Lertxundiren (Orio, 1948) *Zorion Perfektua* (Alberdania, 2002) nobela zinera egokitu dute, dagoeneko bizpahiru hilabete daroate grabaketa lanetan. Filmaren gidioa Orioko idazleak berak idatzi du, eta zuzendaria Jabier Elortegi (Bermeo, 1969) da. Hainbat telesail zuzentzeagatik da ezaguna Elortegi, besteak beste *Goenkale*-ko eta *Balbemendi*-ko zuzendari izan da, eta laster estreinatuko den *Goazen!* lehenengo euskal musikala zuzendu du, Aitor Arangurenegaz batera.

Ostera, *Zorion perfektua* izango da zuzendari legez bermeotarrantzako lehenengo film luzea. Filmerako soinu banda Angel Illarramendik sortu du eta Donostia, Zarautz, Orio, Getaria eta Bartzelonan filmatu dituzte lekutzeak. Pausokak ekoitziko du lana, eta Barton

«Donostia, Zarautz, Getaria, Bartzelona eta abarretan euskaraz filmatzen dihardute»

Films-ek banatuko du. Euskarazko filma izango da, eta gerora gaztelerara bikoiztu dute edo azpitoluak ipiniko dizkiote.

Aktoreen artean ere aurpegi ezagunak daude, besteak beste: Anne Igartiburu, Alberto Berzal, Elena Irureta, Martxelo Rubio, Ramon Barea, eta Felix Arkarazo. 2009an aurkezteko asmoa dute Donostiako Zinemaldian.

Sinopsia

Ainhoaren bizipenak ditu gidari istorioak; piano jolea haurtzaroko lekukotza gogor batetik ihesi dabil; ostera, gertakaria ezin burutik kendu, ezin dio aurre egin. Iragana eta oraina kiribiltzen dira, 80. hamarkadako eta garaiko egunak. Schumannen piano pieza, *Zorion Perfektua*, jotzen ikasten ahalegintzen dabil Ainhua, beti momentu jakin baten tratatzen da ordea... ○

Urte birako egurra!

Ortuellako Ama Say taldea barrero batu, eta oholtza gainera itzuli da

Informazio gehiago: www.myspace.com/amasy

Laurogeigarren hamarkadan bazter guztiak astintzen zituen Euskal Rock Erradikalagaz "aspertuta" edo, 90. hamarkadan musika sortzeko eta ulertzeko beste nahi eta modu batzuk zituzten taldeak osatu ziren adb.: Beti Mugan, BAP!!, Dut edota Getxo aldeko El Inquilino Comunista. Aipatutakoen eta beste batzuren garaikide izan zen Ezkerraldeko Ama Say taldea. Orain dela dozena bat urte desegin taldeak oholtza gainak mendean hartzeko itzuli dela adierazi barri du: *"Urte bi egongo gara egurra ematen"* diote taldearen sareko txo-koan. Talde barrizalea izan zen, besteak

beste, nazioarteko garaiko rock "alternatiboko" talde adierazgarrien doinuak (Pixies, Dinosaur Jr, Sonic Youth etab.) gurera hurbildu zituztenen artekoa izan zelako, eta euskara eta ingelesa izenean eta izanean uztartu zituztelako. Ibon Bilbaok (ahotsagitarra), Gontzal Bilbaok (bateria), Txabi Palaciosok (gitarra) eta Karlos Alonsok (baxua) osatzen duten taldeak lan bi kalertu zituen: *Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen* (Esan Ozenki, 1993) eta *Say Ama* (1994). Hurrengo kontzertuak urtarilaren 3rako (Bonberenea, Tolosa) eta 16rako (Plateruena, Durango) iragarri dituzte. ○

diskoa >

Oihenarten poemak



Pier Paul Berzaitzek Arnaud Oihenart historialari eta olerkari zuberotarraren 16 poemari musika ipini die, eta horiekaz *Arnaud d'Oihenart (1592-1667), Poèmes*

de jeunesse (Elkar) diskoa osatu du. Oihenarten poema erromantikoak musikatzeko Jöel Merah musikariaren laguntza izan du Berzaitzek. Diskoaren aurkezpenean Zuberoako kantariak azaldu zenez, "Oihenartek beste idazleei euskara hizkuntza unibertsala dela erakutsi zien, hots, euskaraz idazten ahal zela". Lan honek Oihenarten obra hobeto ezagutzeko aukera ematen duela azaldu zuen Berzaitzek: ez zen elizgizona, burgesia-noblezia mailakoa, euskaraz idatzi zuen, hiztegi aberatsekoa...

Azkena >

The Pub Ibiltaria

The Pub Ibiltaria disko-segidako azkenekoa aurtan (abenduak 20, 19:00; Bilboko Pio Baroja plaza) grabatuko dutena izango dela jakinarazi du Oskorri taldeak. Eta aurtengoagaz batera izango dituk/n hamahiru! Baten batek esango du zoritxarreko zenbakiak bereak egin dituela barriro ere... Hala, aurtengoagaz da agurreko diskoa... Baina batek daki... Abesti gehiago aurkituz gero, ekimenari barriro ere ekingo diotela azaldu dute-eta. Oskorrigaz batera ikus-entzuleek ere abesti zaharrak, ezezagunak abestuz parte hartzen duten emanalditik sortzen diren diskoek osatzen dute The Pub Ibiltaria saila edo ekimena.

diskoak

Kiribil
Zura
Gor



Xabi Strubellen (Dut taldeko kide ohia; Anariren gitarra jolea) ekimenez sortutako taldearen bigarren lana kalean da. Euren esanetan "euskaraz egindako bossanova berritzailea" dakarkigu lan barriak, eta musikari ezagunen partehartzea izan du, adb.: Eñaut Elorrieta, Ines (Gose), Anari, Sorkun, Marc Barnes, Sabina Leone, Gorka Pastor etab.

Tuboskapi
Tuboskapi
Musikherria



Ondarroako ska taldearen izen bereko agur-diskoa kaleratu du. 8 ska-reggae abestigaz osatutako lanagaz esango diete agur taula-gainekoei sei urteko ibilbidearen ostean. 2002an sortu zuten taldea Ondarroako musika bandan jotzen zuten zenbait gaztek, eta maketaz gainera, hau da estreinako eta amaierako diskoa.

Malko gorria
Sugan
Elkar



ETB1eko *Pilotari* telesailak Goierriko taldeak kaleratutako lehenengo (2006) diskotik (*Irakurketa* abestia) aukeratu zuen sintoniarako kantua, eta hala ezagunago bihurtu zuen Goierriko boskotea. Orain, bigarren lana, *Malko gorria*, plazaratu dute eta oro har "pop-rock klasikoaren" uretan murgiltzen dela azaldu dute.

2rentzako 2na sarreraren zozketan

irabazleak

Inmaculada Garai
Amaia Nerekan

Hor al zaude?

LEIOA KULTUR LEIOAKO AUDITORIUMA
Abenduak 5, barikua, 20:00etan. Sarrera 6€

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

GORLIZ IRRATIA
Urbe Kostako Irratia 107.8 FM
www.gorlizirratia.com

[liburuak]

Merkaturako bidean

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokari begira **makina bat nobedade**

Kritikak, aldekoak eta kontrakoak, onak zein txarrak, bultzada-emaileak edo onura bakoak... Batzuegatik edo besteengatik, baina Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka urtero-urtero, heldu orduko eta ostan ere, beti-beti da albiste.

Eztabaida sakonetan berotzeko asmo barik, Durangoko Azokak daukan zalantza bako ezaugarri batean ipini gura dugu arreta: liburu zein disko barrien aurkezpenen eragile da (onerako ala txarrerako...). Esan gura da, Durangoko Azokaren egunak hurbildu ahala, hamaika generotako liburu eta estilo andanako diskoren aurkezpenak biderkatu egiten direla, euskal literatur eta musika lan barriak Azokaratzen direla. Hala,

«Durangoko Azokaren 43. edizioa abenduaren 5etik 8ra bitartean egingo da»

arrazoi desberdinen zerranda mugagaitzagatik literatura eta musika zaletuek urte osorako-edo otzara betetzeko aukeraketa egiten dute. Narrazioa, nobela, poesia, saiakera, historia, ipuinak, aurrekoen hibridoak... Haur, gazte, heldu... Feministak, historikok, geografikok, iraultzaileak, informatikok, hizkuntzalaritzakoak, internazionalistak, gizarte mugimenduenak, didaktikok, ikas-materialak, jolasak... rock, pop, reggae,

liburuak



Haginetako mina
Hainbaten artean
Txalaparta

Mikel Sotok aukeratu ditu euskal gatazka mami duten, eta bilduma hau osatzen duten 18 ipuinak. Hautatutako ipuinen egileen artean daude: Jon Alonso, Harkaitz Cano, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Jokin Muñoz, J. Sarrionandia, Karmele Jaio, X. Montoia, Iban Zaldúa, Eider Rodriguez etab.



Aurtengo kartela

heavy, punk, ska, folk, tradiziozkoak... liburu, disko, bideo, euskarri anitzekoak... Askok eta askorentzat lekua dago Durangoko Azokan.

Ostera, orrialde hau literatur lanei (literaturaren esangura zabalean) begirakoa da, eta denentzako lekunik eskaintzen ez duenez hainbat argitaletxeren eta Azokaren sareko estekak ematea otu zaigu, gura duenak Durangora joan baino lehen zerranda lana aurrera dezan: ○

www.durangokoazoka.com/katalogoa/2008
www.erein.com
www.susa-literatura.com
www.alberdania.net
www.igela.com
www.txalaparta.com
www.elkarlanean.com
www.pamiela.org



Izendaezinaz
Tere Irastortza
Pamiela

Egunerokoa aipatu gura ez direnak (dituenak; ditugunak): gaiak, beldurrak, gogoetak; Jainkoaren inguruak, hizkuntzaren gainekoak etab. batu ditu Irastortzak (Zaldibia, 1961) argitaratu barri duen saiakera (oraingoan) liburuan.

[kirola]

Esku pilota Getxoko frontoian

Getxo Euskal Pilota taldeak antolatutako XX. Gabonetako txapelketaren **finalak hilaren 14an**



Getxoko frontoian ateratako argazkia

Azaroaren 2an hasi zen Getxo Euskal Pilota taldeak urtero, eta aurtengoa XX. ekitaldia da, antolatzen duen Getxoko Esku Pilotako Gabonetako txapelketa. Ordutik, domekero Getxoko (Andra Mari) pilotalekuan partidak gozatzeko aukera egon da, eta oraindik ere horretarako aukera badago: hilaren 7an finalurrekoak jokatuko dituzte eta hilaren 14an izango da finala; orain arte legez, norgehiagokak 11:00etan hasiko dira. Txapelketa maila bitan jokatzen da: promesen maila (zortzi bikote) eta Lehen maila bereziko zaletuak (zortzi bikote).

Esan legez, aurtengoa txapelketaren XX. ekitaldia da eta taldeko presidente Joaquín Alonsok adierazi duenez, pozik daude ibilideagaz eta lortutakoagaz: *“bere garaian ipinitako helburua, eskolako umeen prestakuntzaz gainera, pilota frontoia erotea izan zen zaletuek ere gozatzeko; eta uste dugu lortu dugula; 4 hiletan zehar domekero (batzuetan zapatuetan ere) pilota partidak ikusteko aukera dago frontoian: antolatzen ditugun hainbat txapelketak profesionalenak zein zaletuenak, edota eskolen ohiko lehiaketa”*. Horrez gainera, txapelketa hau eta

San Isidrokoak izen ona daukatela jakinarazi du eta *“pilotariak horietan partehartzeko irrikan egoten da”*.

Bestalde, kezkatuta ere agertu da Alonso: *“relebestak asko egin du esku pilotaren alde, ostera jendea frontoietatik urrundu ere egin du, jendea ez da hainbeste frontoira etortzen... eta biharko profesionalak frontoietan dabilta gaur egun”*. Dena dela, Gabonetako txapelketara “zaletu nahiko” joan dela azaldu du Alonsok, *“gure*

«Finalurrekoak hilaren 7an jokatuko dira, finalak hilaren 14an, denak 11:00etan hasita»

frontoia nahiko hotza eta deserosoa bada ere, dena dela, domekero 14 litro salda banatzen ditugu apur bat berotzeko”.

Finalurrekoetan lehiatuko diren pilotariak hurrengoak dira: promesen mailan Mendozantoria (Errioxa), Alvarado-Diez (Arababizkaia), Ropon-Arcelus (Gipuzkoa) eta Aurtentxe-Landaburu (Bizkaia); lehen maila berezikoak: Urberuaga-Larrinaga (Bizkaia), Elezkano-Ajuria (Bizkaia), Beitia-Okinena (Bizkaia-Nafarroa) eta Esteban-Cecilio (Errioxa). ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kizol
moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Gotzon Barandiaran > Bihotz Bakartien Klubeko kidea

“Azkenean sinbolikoki kendu dugu katamaloa, garen modukoak azaldu gara”



Gotzon Barandiaran Larrabetzun

Katamaloa, maskara janzen dugu beste bat bihurtzeko. Horri buruz hausnartu dute Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubekoek *Katamalo* lanean, “*sakon maitatzeko beldurraz, zoriontsuak ezin izanaz, lotsaz, harrokeriaz...*”. Bi urtez eskaini dituzte Gotzon Barandiaran taldekidearen poemak taula gainean, azaroaren 7an katamaloa erantzi zuten arte. Zuzeneko diskoan utzi dute lan horren uzta, *Erantzi*.

—“*Ingurutik asko edaten dauan eta bizi dauana hausnartzen dauan idazlea*” izan gura zenukeela aitortu zenuen Arrakalak lana aurkeztean, lortu duzu?

—Ez dakit noiz sentitzen den bat idazle. Askok daukat ikasteko, oraingoz jaka handia da niretzat idazlearena. Besteari dagokionez bai, inoiz baino adiago nago inguruan zer gertatzen den maila pertsonalean, sozialean, zein politikoa.

—BBK, literatura eskola... Horixe izan da zure sorrera idazle moduan?

—Izan da testuinguru bat. Ez dakit idazle noiz sortzen zaren. Behartu barik irakurri

nuen lehen liburitik hasi nintzen zaletzen. Bertso mundua ere txikitatik bizi izan dut, kantua ere, nahasketa horretatik sortu zen. BBK izan da salto oso inportantea, hasi ginelako ezagutzen euskal literatura, sortu genuen literatura eskola, eta eman digu aukera Euskal Herriko idazleak egoteko. Gainera, Larrabetzun hilero antolatzen dugu *Literaturaz berbetan* irakurleen txokoa. Testuinguru horretan errazago hasten zara idazten.

—BBKren sorreran, Katamalo ikuskizunagaz ere, ekitaldi zehatz baterako zena luzatu behar izan duzue, entzuleek eskatuta.

—Publikoak oso-oso ondo hartu du. Gure asmoa ez zen heldu garen punturaino heletzea, ustebakoa izan da. Nahiko era apalean, lortu dugu batzuek hartu-eman estua letren eta kantuen bitartez.

—Musika literaturaren transmisore ona dela konturatu zineten Arrakalak lanean; beraz, Arrakaletan dago Katamaloren arrakastaren gakoa?

—Musikaren indarra zalantza bakoa da. Argi daukagu diskoak eduki izan ez bagenu liburua ez zela horrenbeste zabalduko. Diskoak eta zuzeneko emanaldiek izugarri itzel lagundu diote liburuari.

«Larrabetzun, herriko jendeagaz lan egiteko asmoa eduki dugu beti»

—Katamaloa kendu duzue Durangon azkenean, orain biluzten jarraituko duzue?

—Sinbolikoa izan da, amaiera izan delako. Katamalo izan da kontzeptu jakin baten inguruan. Gu geu taula gainean ere beste batzuk ginen, ez normalean garenok, egoera jakin batean sartzen ginelako, nolabait transformatzen ginen. Azkenengo kontzertuetan sinbolikoki kendu gura izan genuen katamaloa, eta gu geu izan. Askoz lasaiago egon gara, entzuleak anaiartekotasuna lortu dugu, oso gauza hunkigarria izan da, gu garen modukoak azaldu gara. Hemendik aurrera bakoitzak badauzka bere egitasmoak. Katamalo egin dugun taldea ez da izango erraza barriro batzea. BBKgaz segitzen dugu literatura eskola, eta *Literaturaz berbetan* txokoa antolatzen. Taula gaineko adierazpide hori, ordea, oraindik beharko dugu denbora gauzak egiteko, egiten baldin baditugu. Larrabetzun musikariak badaude behintzat, onak eta gazteak, eta gure herriko jendeagaz lan egiteko asmoa eduki dugu beti. Zer edo zer irtengo dela uste dut. ○

*** zuretzat irakurle**
aldizkariaren ibilbidea laburbiltzen duen
20 minutuko proiektzioa prestatu dugu,
ondoren traguska bat. **ZATOZI!**

uk 10 urte
proiektzioa

Abenduaren 4an, osteguna
20:30ean Algortako Kasinoan

* UK aldizkariari hobekuntzak gehitu nahi dizkiogu 2009an. Horretarako, zure ideiak oso garrantzitsuak dira guretzat. Bidali zure proposamenak uk@aldizkaria.biz helbidera edo postaz, 171 posta kutxa, 48991 GETXO helbidera. Kontuan hartuko dizuegu!

abenduaren 7an
Getxon
Santa Eugenia
Plazan, 17:30ean
ERDU METROAN

bota
Bizkaiko bertsolari
txapelketa 2008

XABI PAIA
ETXAHUN LEKUE
IGOR ELORZA
UNAI ITURRIAGA
EÑAUT INTXAURRAGA
GORKA OSTOLAZA

GAJARTZAILEA:
ZURIÑE IARRITU



Bizkaiko
Bertsolari Elkartea

BFA
DFB

bbk

uk

Getxo
G. 09.00000000

metro bilbao

Dena den

Ospakizun txikietarako aukera ona



Pedro Lopez de la Calle eta Eneko Olagorta *Dena den* tabernan

Erritmo barria eman gura izan diote Pedro Lopez de la Calle eta Eneko Olagorta lagunek Leioako "Dena den" jatetxeari. Aspalditik zegoen zabalik, baina urriaren 8an bigarren aldiz inauguratu zuten jabe barriek. Pintxoez gain, hanburgesak, kazolatxoak, entsaladak eta plater konbinatuak eskainiko dituzte. Urtebetetzeak edo beste edozein egun berezitako ospakizunak egiteko leku aproposa da "Dena den"; mahai handiak ditu eta 50 lagun baino gehiagorentzako lekua dago. Gainera, asteburuetan berandura arte egoten da zabalik: "Ordu biak arte gutxi gora behera". Adin guztietako jendea hurbiltzen da: "Herriko jendea dator, betiko lagunak eta ezagunak. Bizitza osoa daroagu herrian eta jende asko ezagutzen dugu". "Dena den" -etik oso hur-

bil dagoen beste taberna bateko jabeak ere badira, eta horrek herriko giroa ondo eza-gutzeko aukera eman die: "Zoritxarrez azken urtean behera joan da herriko giroa; tabernari gehienek ikusi dugu hori. Seguruenik krisiaren eragina izango da". Hala ere, asteburuetan gazte asko ikusten da poteoan: "Beharrea dagoen jendea da, baina asteburuak libre dituzte eta lagunak irteerako aprobetxatzen dute".

Orain arte ez dute jairik antolatu, baina datozen hilabeteetan bat edo bat egingo dute: "Heineken markakoak antolatzen dugun horietako bat adibidez". Athleticeen norgehiagokak, zein beste kirol emankizunak ikusteko, hiru pantaila handi dituzte. ○

Iparragirre 42-44, LEIOA
Tel.: 94 405 26 33

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan 35, GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe 11, ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tel. 94 676 11 01



ARTAZA ETXEA

jatetxea

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



prentsa • aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasorekin bat)
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa!"
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
 T: 430 22 13 T: 460 02 88
 GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g,
 Algorta

*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Ospakizunetarako arrazoi ugari daude: urtebetetzeak, herriko jaiak, jaiotzak... Zuk ez duzu aitzakiarik behar; egun barria hastear dagoela pentsatzea nahikoa da zuretzat. Gora bihotza!</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Konturatu barik, etapa barri batean sartu zara. Bizitzako esparru ezberdinetan eragina izango du horrek. Arraroa egingo bazaizu ere, eskertuko duzu. Behar zenuen aldaketa suposatuko du zuretzat eta zure ingurukoentzat.</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Esperimentuak egiten ibili zara azken boladan. Batzuk ondo irten dira; besteak aldiz, ez hain ondo. Baina denek balio izan dizute ikasteko. Jarraitu esperimenduak, baina gogoratu hartu beharreko neurriak hartzeaz, istripu larririk ez izateko.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Gauzak ondo irtetzen ez badira ere, aurrera egiten ikasi behar duzu. Lagunek lortu badute, zuk lor dezakezu. Bizitza ez da arrosa kolorekoa, baina horrek ez du esan gura dena beltz ikusi behar denik.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Energia ikaragarria daukazu barruan. Hobe duzu kirola praktikatzen deskargatzea edo proiektu artistikoren bat egiteko erabiltzea; bestela, badakizu zer gerta daitekeen. Mugi zaitetz berandu izan baino lehen.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Urte osoa bakarrik eman duzu, eta bat-batean bi amorante agertu dira bidean. Zein aukeratu? Agian ez duzu aukeratu beharrik. Edo agian bat ere ez da egokia zuretzat. Zuk baino ez daukazu galdera guztien erantzuna.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Jan eta lo potolo. Egia da etxera berandu, nekatuta eta gose handiz helzen zarela. Baina hainbeste afaltzen jarraitzen baduzu 2009a hamar kilo gehiagogaz hasiko duzu. Frogatu arrastietan fruta jaten.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Etxetik irten ezinik ibili zara azken egunotan. Ez zenuen uste horretarako gai izango zinenik, baina azkenean gustua hartu diozu. Pentsatzen zenuena baino gauza gehiago egin daitezke lau hormen artean.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Auzokideekaz hitz egiteko ordua heldu da. Txakur nazkagarri horren zaunkak ez dizu lo egiten uzten, eta osasunean nabaritzen hasi zara. Badakizu ez dela txakur gizajoaren errua, jabearena baizik. Nor ote?</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Katua ekarri zenuenetik giro hobea dago etxekoan artean. Eskerrak, ezin zenituen amaren erantzunak eta ahizparen oihuak gehiago jasan. Halere, beldur zara. Noiz arte giro ona?</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Irudimena erabiltzen duzunean askoz emankorragoa zara. Baina gehiegi kostatzen zaizu martxan jartzea. Agian nobela fantastiko gehiago irakurri beharko zenituzke.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Epe luzerako proiektuak abiarazteko garai aproposa duzu. Zure barne energiak eta inguruko jarrerak asko lagunduko dizute. Gainera, diru aldetik ondo zabilta eta hori oso garrantzitsua da.</p>

badator koska berria!

KOSKA
 irratia 108 FM

Uribe Kostak behar duen informazioa


www.koskairratia.com



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Sendagile faltsu. 2. Itsas eta ibai arrain. Irria adierazten duen hitza. 3. Euskal Herriko lurraldea. Bokala. 4. Hiri, bizkaieraz. Nafarroako herria, Larraunen. 5. Dirua. Ukitu. 6. Iodoaren ikurra. Urruntasuna adierazten duen aurizki grekoa. Atx! 7. Erabilera. Siberiako ibaia. Bokala. 8. Bi. Ukimendua. 9. Putre. Pastoraletako pertsonaia. 10. Nekatu, unatu. Bizkaiko herria.

Goitik behera

1. Muki ehunaren hantura 2. XI. hila-betea. Saudi Arabiako hiriburua 3. Antzinako Grezian, filosofia maisua. Bi 4. Euskalduntze erakundea. Aezkoar. Kontsonantea. 5. Hegazti harropari. Emakume izena. 6. Gizon izena. Norat atzizkia. 7. 500. Bururatu. Baratze. 8. Txondorra. 9. Atzizkia. Da, alemanez. Emakume izena. 10. Oinarizko edaria. Uxatu aditzaren oina. A bikoitza.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > **lagun birentzako bazkaria**



Nor da?

- **Iparaldeko bertsulari txapelketako finalista**
- **Hendaiarra**
- **Iparaldeko bertso txapelkunaren arreba**

> Aurrekoaren erantzuna: Gorka Urbizu
> Irabazlea: **Udane Magunazelaia***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



Freeskue liburua

www.argia.com



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



GOIKO NUÑEZEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Leioztarrak Debarantz, 1965

Zehatzagoak izateko Udondo auzokoak dira gehienak eta beraiek, gainera, udondotarrak sentitzen dira harrotasunez. Urte horretako maiatzaren 16an Deban antolatu zen Lehen Euskal Jaia, eta horregatik bertaratu ziren autobusez (argazkia autobus barrukoak da). Milaka pertsona joan zen batez ere Bizkaitik eta Gipuzkoatik. Udondotar batzuk Ondarroara joan behar izan zuten bazkaltzera Deba toperaino zegoen eta. Bazkal ostean herriko frontoira joan ziren, eta hantxe ezagutu zuten Imanol Oruemazaga, Ondarroako apaiz zintzoa (espetxean egonikoa, bere etxea birritan tirokatua...) eta elkarregaz ibili ziren esku pilotan.

Debako jaia zoragarria izan zen, gozatu zuten, eta ez zen istilurik sortu; ez zen agertu ez poliziarik, ez guardia zibilik. Baina, hurrengo urtean, ez zen Deban Euskal Jairik egon, autobusak herrira heldu orduko itzularazi edo desbideratzen zituztelako.

Ezkerretik eskuinera: Basagoiti, Jose Ignacio Azkueta, Jose Luis Chans, Goio Nuñez, Jose Antonio Ugarte, Jose Francisco Aretxabaleta, (eskuaren atzean), Mateo Mintegi, Juan Manuel Murueta.

[aitormenak]

NAROA GAINZA JAUREGI > Abeslaria

“Itsaso ondoan, etxe txiki batean bizitzearekin amets egiten dut”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Alaia eta bat-batekotasuneko.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

El indomable Will Hunting filmean. Irakasle moduan pelikulakoa bezalako erronka zailak gustuko ditut.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Bat esatekotan Antso Handia Erregea esango nuke. Dena den, oso galdera zaila iruditzen zait hau, nahiago dut paso egin.

Orain zarena izango ez bazina zertan gustatuko litzazuke jardutea?

Orain egiten dudana gustuko dut.

Badakazu ohitura txarren bat?

Atzazalak jatea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Bakardadea; niretzako bizioa dela uste dut.

Badago barrero egingo zenukeen bidaiarik?

Eskoziara joango nintzateke. Hango jendeagaz zerikusi handia geneukala iruditu zitzaidan.

Zein da zure ametsetako bat?

Itsaso ondoan bizitzea, itsasoaren oinetan dagoen etxe txiki batean.

Irakurri duzun azken liburua?

Txakur bat hartu berri dut, eta irakurri ditudan azken bost liburuak txakurren heziketari buruzkoak izan dira.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Musikarik gabe.

Eguna ala gaua?

Gaua; aktiboago nago.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Eako Lapatza (Bizkaia). Nire momenturik onenak bertan eman ditut. ○

LABURREAN— Badira bost urte Naroa Gaintza Jauregi deustuarra Amaiur erromeria taldean hasi zenetik. Euskal Herriko hainbat herritako jai zaleak dantzan jartzen dituen taldea, bera sartu baino urte batzuk lehenago sortu zen; gaur egun ez da sortu zutenetik inor geratzen. Kasualitate kontua izan da Naroarentzat musika talde batean jardutea; lagun batek taberna batean abesten entzun, eta Amaiurrekoak abeslari bila zebiltzala jakinda, proba egitera animatu zuen. Abeslariarentzat, oso esperientzia polita izan da bost urte hauetan bizi izan duena, batez ere, taldekideek duten harreman estuagatik. Gainera, ez zuen espero jendeak egin dien harrera beroa, eta oso pozik dago egindako lanagaz.



Hor al zaude?

LEIOA KULTUR LEIOAKO AUDITORIUMA

Abenduak 5, barikua, 20:00etan. Sarrera: 6€



GETXO **arte** '08

ARTE SORTU BERRIEN ARETOA / SALÓN DE LAS ARTES EMERGENTES

ABENDUAREN SETIK 8RA ARTE
DEL 5 AL 8 DE DICIEMBRE

AREETAKO GELTOKIA PLAZAKO KARPAN
CARPA DE LA PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

ORDUTEGIA/HORARIO:
11:00 - 14:00, 17:00 - 21:30

SARRERA/ENTRADA: 2€

BESTE SARRERA BAT DOAN BBK 26 TXARTELA, GAZTE
TXARTELA EDO UNIBERTSITATE KARNETA AURKEZTUZ.

OTRA ENTRADA GRATIS PRESENTANDO LA TARJETA
BBK 26, GAZTE TXARTELA O CARNET UNIVERISTARIO.

DISEÑO BASADO EN UNA OBRA DE CARLOS CASTRO